50/1981 Legea, abenduaren 30ekoa, Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duena.

Estatuko Buruzagitza
1982ko urtarrilaren 13ko BOEa, 11. zk.;
Erreferentzia: BOE-A-1982-837

AURKIBIDEA

Hitzaurrea 6

I. TITULUA. Fiskaltza eta haren eginkizunak 6

I. KAPITULUA. Fiskaltza 6

Lehenengo artikulua. 6

Bigarren artikulua. 6

II. KAPITULUA. Fiskaltzaren eginkizunak 6

Hirugarren artikulua. 6

Laugarren artikulua. 7

Bosgarren artikulua. 8

III. KAPITULUA. Legezkotasun- eta inpartzialtasun-printzipioak 8

Seigarren artikulua. 8

Zazpigarren artikulua. 9

IV. KAPITULUA. Fiskaltzaren eta botere publikoen arteko harremanak 9

Zortzigarren artikulua. 9

Bederatzigarren artikulua. 9

Hamargarren artikulua. 9

Hamaikagarren artikulua. 9

II. TITULUA. Fiskaltzaren organoak eta haren oinarri diren printzipioak 10

I. KAPITULUA. Antolamendua, eskumenak eta egitura 10
Hamabigarren artikulua. 10
Hamahirugarren artikulua. 10
Hamalaugarren artikulua. 11
Hamabosgarren artikulua. 12
Hamaseigarren artikulua. 12
Hamazazpigarren artikulua. 12
Hemezortzigarren artikulua. 13
18 bis artikulua. 14
18 ter artikulua. 14
18 quater artikulua. 14
18 quinquies artikulua. 15
Hemeretzigarren artikulua. 15
Hogeigarren artikulua. 16
Hogeita batgarren artikulua. 18
Hogeita batgarren bis artikulua. 19
II. KAPITULUA. Fiskaltzaren batasuna eta mendekotasuna. 19
Hogeita bigarren artikulua. 19
Hogeita hirugarren artikulua. 20
Hogeita laugarren artikulua. 20
Hogeita bosgarren artikulua. 21
Hogeita seigarren artikulua. 21
Hogeita zazpigarren artikulua. 21
Hogeita zortzigarren artikulua. 22
III. TITULUA. Estatuko fiskal nagusia, autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiak eta karrera fiskala 22
I. KAPITULUA. Estatuko fiskal nagusia 22
Hogeita bederatzigarren artikulua. 22
Hogeita hamargarren artikulua. 22
Hogeita hamaikagarren artikulua. 22
II. KAPITULUA. Karrera fiskala, hura osatzen duten kategoriak eta hartako destinoak betetzea 23
Hogeita hamabigarren artikulua. 23

Hogeita hamahirugarren artikulua. 23
Hogeita hamalaugarren artikulua. 23
Hogeita hamabosgarren artikulua. 23
Hogeita hamaseigarren artikulua. 24
Hogeita hamazazpigarren artikulua. 25
Hogeita hemezortzigarren artikulua. 25
Hogeita hemeretzigarren artikulua. 25
Berrogeigarren artikulua. 25
Berrogeita batgarren artikulua. 26
III. KAPITULUA. Fiskal-izaera eskuratzea eta galtzea 26
Berrogeita bigarren artikulua. 26
Berrogeita hirugarren artikulua. 26
Berrogeita laugarren artikulua. 26
Berrogeita bosgarren artikulua. 27
Berrogeita seigarren artikulua. 27
IV. KAPITULUA. Karrera fiskaleko egoerak 27
Berrogeita zazpigarren artikulua. 27
V. KAPITULUA. Fiskaltzako kideen eskubideak eta betebeharrak 28
Berrogeita zortzigarren artikulua. 28
Berrogeita bederatzigarren artikulua. 28
Berrogeita hamargarren artikulua. 28
Berrogeita hamaikagarren artikulua. 28
Berrogeita hamabigarren artikulua. 28
Berrogeita hamahirugarren artikulua. 28
Berrogeita hamalaugarren artikulua. 28
Berrogeita hamabosgarren artikulua. 29
Berrogeita hamaseigarren artikulua. 29
VI. KAPITULUA. Bateraezintasunak eta debekuak 29
Berrogeita hamazazpigarren artikulua. 29
Berrogeita hemezortzigarren artikulua. 30
Berrogeita hemeretzigarren artikulua. 30

VII. KAPITULUA. Fiskaltzako kideen erantzukizuna 30
Hirurogeigarren artikulua. 30
Hirurogeita batgarren artikulua. 31
Hirurogeita bigarren artikulua. 31
Hirurogeita hirugarren artikulua. 31
Hirurogeita laugarren artikulua. 32
Hirurogeita bosgarren artikulua. 33
Hirurogeita seigarren artikulua. 33
Hirurogeita zazpigarren artikulua. 33
Hirurogeita zortzigarren artikulua. 34
Hirurogeita bederatzigarren artikulua. 34
Hirurogeita hamargarren artikulua. 34
IV. TITULUA. Langileak eta bitarteko materialak 34
KAPITULU BAKARRA. 34
Hirurogeita hamaikagarren artikulua. 34
Hirurogeita hamabigarren artikulua. 34
Xedapen iragankorrak 35
Lehenengo xedapen iragankorra. 35
Bigarren xedapen iragankorra. 35
Hirugarren xedapen iragankorra. 35
Laugarren xedapen iragankorra. 35
Bosgarren xedapen iragankorra. 35
Seigarren xedapen iragankorra. 35
Zazpigarren xedapen iragankorra. 35
Zortzigarren xedapen iragankorra. 35
Bederatzigarren xedapen iragankorra. 36
Xedapen gehigarriak 36
Lehenengo xedapen gehigarria. 36
Bigarren xedapen gehigarria. 36
Hirugarren xedapen gehigarria. Auzitegi Goreneko fiskal emerituak 37
Laugarren xedapen gehigarria. 37

.

Azken xedapenak 37

Azken xedapenetako lehenengoa. 37

Azken xedapenetako bigarrena. 37

TESTU BATERATUA
Azken aldaketa: 2021eko uztailaren 2a

JUAN CARLOS I.A, ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela, eta Nik, hemen, berretsi egiten dudala:

I. TITULUA

Fiskaltza eta haren eginkizunak

I. KAPITULUA

Fiskaltza

Lehenengo artikulua.

Fiskaltzaren egitekoa, legezkotasuna, herritarren eskubideak eta legeak babestutako interes publikoa defendatzearren, justizia sustatzea da, ofizioz edota interesdunek hala eskatuta. Era berean, auzitegien independentzia bermatzea eta auzitegietan gizartearen interesak betetzea ere baditu eginkizun.

Bigarren artikulua.

Bat. Fiskaltza Konstituzioaren argitan garrantzia duen organoa da. Nortasun juridikoa du, Botere Judizialean txertatuta dago eta autonomia funtzionala du. Bere organo propioen bidez gauzatzen ditu dagozkion egitekoak, eta honako printzipio hauek zuzentzen dute bere jarduna: ekintza-batasunaren printzipioak, mendekotasun hierarkikoaren printzipioak, legezkotasun-printzipioak eta inpartzialtasun-printzipioak.

Bi. Izendapen hau Fiskaltzari bakarrik dagokio.

II. KAPITULUA

Fiskaltzaren eginkizunak

Hirugarren artikulua.

1. artikuluan xedatutako helburuak betetzeko, honako hauek egitea dagozkio Fiskaltzari:

1. Jurisdikzio-funtzioa eraginkortasunez gauzatzen dela zaintzea, legeei jarraikiz eta legeetan ezarritako epeak eta baldintzak betez. Hala dagokionean, egoki diren akzioak, errekurtsoak eta jarduketak gauzatuko ditu.

2. Legeak epaileen eta auzitegien independentzia defendatzeko esleitzen dizkion eginkizunak betetzea.

3. Konstituzio-erakundeak, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak errespetatzen direla zaintzea, horiek defendatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak eginez.

4. Delituen ondoriozko akzio penalak eta zibilak egikaritzea, kalterik egin gabe Europako Fiskaltzak duen eskumenari, bere araudiaren arabera, akzio penala egikaritzeko eta ahozko epaiketa irekitzea eskatzeko Batasunaren finantza-interesen aurkako delituengatik, edo beste batzuek egikaritutakoen aurka egitea, hala dagokionean.

5. Zigor-arloko prozesuan esku hartzea, agintari judizialari egoki diren kautelazko neurriak hartzeko eta gertatutakoak argitzera zuzendutako eginbideak egiteko eskatuz, edota zuzenean Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen Lege Organikoan ezarritakoaren arloko prozeduraren izapideak eginez. Polizia Judizialari egoki iritzitako eginbideak egiteko agindua emateko aukera izango du.

6. Legezkotasuna eta herriaren edo gizartearen interesa defendatzeko, egoera zibilari buruzko prozesuetan eta legeak xedatutako gainerakoetan parte hartzea.

7. Legeak xedatutako prozesu zibiletan esku hartzea, interes soziala arriskuan dagoenean edota adingabeek, ezgaiek edo babesgabeek prozesu zibil horien eraginak jasan ditzaketenean, ordezkaritzarako mekanismo arruntak dituenean.

8. Epaileen eta auzitegien jurisdikzioaren eta eskumenaren osotasunari eustea, jurisdikzio-gatazkak eta eskumen-arazoak sustatuz eta beste batzuek sustatutakoetan esku hartuz.

9. Interes publiko eta soziala ukitzen duten ebazpen judizialak betearazteaz arduratzea.

10. Biktimen babes prozesalaz eta lekukoen eta perituen babesaz arduratzea, laguntza eta asistentzia eraginkorra jaso dezaten aurreikusitako mekanismoak sustatuz.

11. Babeserako prozesu judizialetan esku hartzea; bai eta inkonstituzionaltasun-arazoetan ere, betiere Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoak aurreikusitako kasuetan eta moduan.

12. Konstituzio-babeserako errekurtsoa jartzea eta Konstituzio Auzitegia legezkotasuna defendatzeko aztertzen ari den prozesuetan parte hartzea, legeek ezarritako moduan.

13. Adingabeen erantzukizun penalaren arloan legeria espezifikoak esleitzen dizkion eginkizunak betetzea, eta bere jarduna adingabeen interes gorenak defendatzera bideratzea.

14. Kontuen Auzitegiaren aurreko prozeduretan legeek aurreikusitako kasuetan eta moduan esku hartzea. Legezkotasuna ere defendatzea Fiskaltzaren esku-hartzea aurreikusten duten administrazioarekiko auzien eta lan-arloko prozesuetan.

15. Nazioarteko hitzarmenetan, tratatuetan eta legeetan aurreikusitako nazioarteko laguntza judiziala sustatzea, edota, hala dagokionean, laguntza hori ematea.

16. Estatuko ordenamendu juridikoak esleitutako gainerako eginkizunak betetzea.

Oro har, fiskalak idatziz edota agerraldi bidez esku hartu ahal izango du prozesuetan. Bitarteko teknologikoak ere baliatu ahal izango ditu esku hartzeko, betiere bitarteko horiek fiskalaren eginkizunak behar bezala betetzea ziurta badezakete eta dagokion egintza balioduna izan dadin beharrezko diren bermeak eskaintzen badituzte. Fiskalak azken aukera gisa esku hartuko du prozesu ez-penaletan, baldin eta legeak besterik ezartzen ez badu edota demandatzailea ez bada behintzat.

Laugarren artikulua.

Eginkizunak betetzeko, honako hauek egin ahal izango ditu Fiskaltzak:

Bat. Edozein ebazpen judizial jakinarazteko eskatu, baita prozeduren egoerari buruzko informazioa ere. Prozeduren egoera edozein izanik, horiek erakusteko eska dezake, legeak, epeak eta epemugak zuzen betetzen direla zaintzeko, eta, hala dagokionean, behar diren zuzenketak sustatzeko. Horrez gain, prozedura bat eragin duten gertakariei buruzko informazioa eskatu ahal izango du, prozedura edozein motatakoa dela ere, baldin eta horien berri izatea auziaz arduratzen ari den organoa ez den beste organo baten eskumenekoa dela pentsatzeko zentzuzko arrazoiak baditu. Erregistro ofizialetako informazioa zuzenean eskuratu ahal izango du, horietarako sarbidea kontrol judizialera mugatuta ez dagoenean.

Bat bis. Europako Fiskaltzaren edozein ebazpenen jakinarazpena eskatu, hark parte hartu duen gaietan, eta harekin elkarlanean aritu beharko du hark bere gain hartzen dituen ikerketetan, hala eskatzen zaionean.

Bi. Edonolako atxilotze-, espetxe- edo barneratze-zentro edo -establezimendu edozein unetan bisitatu, zentro horietan barneratuta daudenen espedienteak aztertu eta egoki deritzon informazioa bildu.

Hiru. Edozein motatako agintariei eta horien agenteei laguntza eskatu.

Lau. Polizia Judizialeko funtzionarioei unean-unean bidezko aginduak eta jarraibideak eman.

Bost. Herritarrei gertakarien berri eman, betiere bere eskumenen barruan eta sumarioaren sekretuari eutsita, eta, oro har, karguari eta ukitutako pertsonen eskubideei lotutako zuhurtzia- eta isiltasun-betebeharrak beteta.

Fiskaltzari artikulu honetan eta hurrengoan adierazitako ahalmenak egikaritzen lagundu behar dioten agintariek, funtzionarioek, erakundeek edo partikularrek legearen mugen barruan bete beharko dute eskatutakoa. Era berean, eta muga berarekin, fiskalaren aurrean agerraldia egin beharko dute fiskalak hala xedatutakoan.

Sei. Probintzia-fiskaltzen egoitzetan eta beharrezko iritzitako beste fiskaltzetan, bere muga-barruan egindako arau-hauste kriminalen biktimekin eta kaltetuekin harremanetarako zentroak jartzea auzitegian edo epaitegian prozesu penalak dituzten auzien kasuetan, horrela, biktimek eta kaltetuek jasandako kalte-galeren berri izateko eta horien izaera eta norainokoa egiaztatzeko dituzten dokumentuak eta gainerako frogak aurkezteko.

Bosgarren artikulua.

Bat. Fiskalak salaketak jaso ahal izango ditu, agintari judizialei bidaltzeko edo artxiba daitezela agintzeko, akziorik egikaritzeko oinarririk aurkitzen ez badu. Azken kasu horretan, salatzaileari jakinaraziko dio erabakia.

Bi. Era berean, eta salatutako gertakariak edo atestatuetan agertutakoak argitzeko xedez, Prozedura Kriminalaren Legearen arabera zilegi zaizkion eginbideak egin edo agindu ahal izango ditu. Eginbide horiek ezin dute ekarri kautelazko neurriak edo eskubideak murrizteko neurriak hartzea. Dena den, fiskalak prebentziozko atxiloketa agindu ahal izango du.

Fiskaltzak gauzatu edo zuzendutako eginbide guztiek benetakotasun-presuntzioa izango dute.

Kontraesan-, proportzionaltasun- eta defentsa-printzipioetan oinarrituta egongo dira eginbideak.

Horretarako, fiskalak deklarazioa hartuko dio susmagarriari eta hark abokatu baten laguntza jasoko du. Gauzatutako eginbideen edukia jakin ahal izango du. Eginbide horien iraupenak ikertutako gertakariaren izaerarekiko proportzionatua izan behar du, eta ezingo da sei hilabete baino gehiagokoa izan, Estatuko fiskal nagusiak emandako dekretu arrazoituaren bidez epea luzatzen ez bada behintzat. Hala ere, Estatutu honetako hemeretzigarren artikuluko laugarren apartatuan aipatutako delituei buruz egindako ikerketa-eginbideek gehienez hamabi hilabeteko iraupena izango dute, Estatuko fiskal nagusiak emandako dekretu arrazoituaren bidez epea luzatzen ez bada behintzat.

Hiru. Epea amaitutakoan, ikerketak frogatuko balu zigortzeko modukoak izan daitezkeen gertakariak izan direla, fiskalak judizializatu egingo ditu, edozein dela eginbideen egoera. Horretarako, dagokion salaketa edo kereila jarriko du, artxibatzea bidezkoa ez bada behintzat.

Fiskalak prozesu aurreko eginbideak abiarazi ahal izango ditu, ordenamendu juridikoak esleitutako gainerako funtzioak errazago gauzatzeko.

III. KAPITULUA

Legezkotasun- eta inpartzialtasun-printzipioak

Seigarren artikulua.

Legezkotasun-printzipioari jarraikiz, Fiskaltzak Konstituzioa, legeak eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak beteko ditu bere jardunean, eta bidezkoak diren akzioen irizpenak eta informazioa emango ditu, eta, hala dagokionean, akzio horiek gauzatuko ditu edo oker egindakoen aurka egingo du legeek ezarritako heinean eta neurrian.

Fiskalari iruditzen bazaio eskatu zaizkion ekintzak edo jarduna gauzatzea ez dela bidezkoa, Estatutu honen 27. artikuluan ezarritako ahalmenak erabiliko ditu.

Zazpigarren artikulua.

Inpartzialtasun-printzipioari jarraikiz, Fiskaltzak erabateko objektibotasunez eta independentziaz jardungo du agindu zaizkion interesak defendatzeko.

IV. KAPITULUA

Fiskaltzaren eta botere publikoen arteko harremanak

Zortzigarren artikulua.

Bat. Gobernuak interes publikoa defendatzeko jarduerak susta ditzala eskatu ahal izango dio Estatuko fiskal nagusiari.

Bi. Gobernua eta Fiskaltza Justiziako ministroaren bidez komunikatuko dira, Estatuko fiskal nagusiaren bidez. Gobernuko presidentea, beharrezko iritzitakoan, zuzenean jarri ahal izango da Fiskaltzarekin harremanetan.

Estatuko fiskal nagusiak, Auzitegi Goreneko Saletako Fiskalen Batzordea entzun ondoren, eskatutako jardueren bideragarritasunari edo bidezkotasunari buruzko erabakia hartuko du, eta ebazpenaren berri emango dio Gobernuari, arrazoiak argudiatuz. Horrez gain, eskaera egin duenari ere jakinaraziko dio erabakia.

Bederatzigarren artikulua.

1. Estatuko fiskal nagusiak memoria bat igorriko dio urtero Gobernuari, eta bertan haren jardueren, kriminalitatearen bilakaeraren, delituen prebentzioaren eta Justizia eraginkorragoa izateko egin beharko liratekeen aldaketen berri emango dio. Memoria horretan, halaber, organoetako fiskalek bidalitako memorietan jasotako oharrak jaso beharko dira, erregelamenduz ezarritako moduan eta epean. Gorte Nagusiei eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari memoriaren kopia igorriko die. Estatuko fiskal nagusiak jendaurrean aurkeztu ondorengo lehenengo saioen aldian aurkeztuko die memoria Gorte Nagusiei.

2. Estatuko fiskal nagusiak, Gobernuak hala eskatutakoan eta legezko oztoporik ez dagoenean, Fiskaltza esku hartzen ari den edozein gairi buruzko informazioa emango dio Gobernuari, baita Justizia Administrazioaren funtzionamendu orokorrari buruzkoa ere. Ezohiko kasuetan, informazioa Ministro Kontseiluaren aurrean emateko eskatu ahal izango diote.

Hamargarren artikulua.

Fiskaltza Gorte Nagusiekin elkarlanean arituko da Gorteek hala eskatzen diotenean eta legearen aldetik oztoporik ez dagoenean, Gorteetan haiek berariaz eskatutako gaiei buruz informazioa ematera agertzeko aukera alde batera utzi gabe. Gorte Nagusiak ganberetako presidenteen bidez jarriko dira harremanetan Fiskaltzarekin.

Hamaikagarren artikulua.

Bat. Bere eskumenen barruan, eta autonomia-erkidegoetako gobernu-organoek interes publikoa babestearren Fiskaltzaren esku-hartzea eskatzen dutenean, lehenengo Justizia Ministerioari jakinarazi eta, ondoren, autonomia-erkidegoko fiskal nagusiarengana joko dute. Hark jarriko du Estatuko fiskal nagusia jakinaren gainean eta azken horrek, Saletako Fiskalen Batzordeari entzun ondoren, dagokiona erabakiko du, betiere legezkotasun-printzipioa betez. Hartutako erabakia edozein dela, eskaera egin duenari erabakiaren berri emango zaio.

Bi. Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek dagokien lurralde-eremuko fiskaltzen jarduerari buruzko memoria prestatuko dute, eta Estatuko fiskal nagusiari igorriko diote. Era berean, kopia bana bidaliko diete Gobernuari, Justizia Kontseiluari eta autonomia-erkidegoko Biltzar Legegileari. Memoria ezagutarazi den egunetik zenbatzen hasita sei hilabete igaro baino lehen aurkeztu beharko dute memoria autonomia-erkidegoko Biltzar Legegilean.

Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiak elkarlanean arituko dira autonomia-erkidegoko Biltzar Legegilearekin, aurreko artikuluan Estatuko fiskal nagusiaren eta Gorte Nagusien arteko harremanetarako aurreikusitako kondizio eta modu berberetan.

Hiru. Fiskaltzako kideak Justizia arloan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoekin arituko dira elkarlanean, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden baliabide materialen eta giza baliabideen arloan autonomia-erkidegoek dituzten eginkizunak eraginkortasunez betetzeko eta autonomia-erkidegoetan Justizia Administrazioan parte hartzen duten operadore eta instantzien artean osatzen dituzten lankidetza-organoetan parte hartuko dute Justizia Administrazioarekin lotutako gaiak aztertzeko, eztabaidatzeko eta horiei buruzko azterlanak egiteko. Autonomia-erkidegoekin hitzarmenak sinatu ahal izango dira, aurrez Estatuko fiskal nagusiaren baimena lortuta.

II. TITULUA

Fiskaltzaren organoak eta haren oinarri diren printzipioak

I. KAPITULUA

Antolamendua, eskumenak eta egitura

Hamabigarren artikulua.

Fiskaltzak honako organo hauek ditu:

a) Estatuko fiskal nagusia.
b) Fiskalen Kontseilua.
c) Salako Fiskalen Batzordea.
d) Autonomia-erkidegoetako Fiskal Nagusien Batzordea.
e) Auzitegi Goreneko Fiskaltza.
f) Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltza.
g) Auzitegi Nazionaleko Fiskaltza.
h) Fiskaltza Bereziak.
i) Kontuen Auzitegiko Fiskaltza, zeinak auzitegi horren Lege Organikoan xedatutakoaren arabera jardungo duen.
j) Fiskaltza Juridiko Militarra.
k) Autonomia-erkidegoetako Fiskaltzak.
l) Probintzia Fiskaltzak.
m) Eremuko Fiskaltzak.
n) Datuen Babesa Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Unitatea.

Hamahirugarren artikulua.

Bat. Estatuko fiskal nagusiak Estatuko Fiskaltza Nagusia zuzentzen du, zeina honako hauek osatzen duten: Ikuskaritza Fiskalak, Idazkaritza Teknikoak, Laguntza Unitateak eta plantillaren barruan erabakitako Salako fiskalek.

Estatuko fiskal nagusiari dagokio, Estatutu honen beste manu batzuetan aitortutako ahalmenez gain, karguetarako maila-igoerak eta izendapenak Gobernuari proposatzea, Fiskalen Kontseiluak txostena egin ondoren, eta dagokion autonomia-erkidegoko fiskal nagusiari entzunik bere lurralde-eremuko fiskaltzetako karguak direnean.

Bi. Fiskalburu ikuskatzaile batek zuzenduko du Estatuko fiskal nagusiaren Ikuskaritza Fiskala, zeina honako hauek osatuko duten: fiskalburuorde ikuskatzaile batek eta plantillaren barruan erabakitako ikuskatzaile fiskalek. Bere eginkizunak modu iraunkorrean beteko ditu Estatuko fiskal nagusiaren eskuordetza bidez erregelamenduak ezarritakoari jarraikiz, alde batera utzi gabe fiskaltza bakoitzeko fiskalburuari bere mende dauden funtzionarioekin lotuta dagozkion ikuskatze-eginkizunak. Nolanahi ere, autonomia-erkidegoko fiskal nagusiari dagokio bere lurralde-eremuko fiskaltzen ohiko ikuskapena egitea.

Balioesteko Atal Iraunkor bat sortuko da Ikuskaritza Fiskalean, fiskalen merezimenduei eta gaitasunari buruzko informazio guztia zentralizatzeko, karrera fiskaleko irizpidezko izendapenen proposamenen txostena egiteko orduan Fiskalen Kontseiluari lagun diezaion.

Hiru. Fiskalburu batek zuzenduko du Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Idazkaritza Teknikoa, eta fiskalburuorde batez eta plantillak erabakitako fiskalez osatuta egongo da. Fiskalen Batzordeak Estatuko fiskal nagusiari lagundu beharreko arloetan agintzen zaizkien prestaketa-lanak egingo dituzte fiskal horiek, bai eta Estatuko fiskal nagusiak egoki iritzitako beste azterlan, azterketa eta txosten batzuk ere.

Horrez gain, karrera fiskaleko kideen prestakuntzaren plangintzan ere lagunduko du Idazkaritza Teknikoak, horren eskumena Ikasketa Juridikoen Zentroak duen kasuetan.

Beste organo batzuei agindutako eskumenak alde batera utzi gabe, Idazkaritza Teknikoak bere gain hartuko ditu legeek nazioarteko lankidetza judizialaren arloan Fiskaltzari esleitutako eginkizunak, Gobernuak emandako kanpo-politikako jarraibideen esparruan betiere.

Lau. Fiskalburu batek zuzenduko du Laguntza Unitatea, eta plantillak erabakitako fiskalez osatuta egongo da. Bere eginkizunak betetzeko, Laguntza Unitateari Estatuko Administrazio Orokorreko eta Justizia Administrazioko funtzionarioak adskribatu ahalko zaizkio, plantillak zehaztutako kopuruan, baina, nolanahi ere, zerbitzu aktiboan geldituko dira beren jatorrizko kidegoetan. Estatuko Fiskaltza Nagusiari honako arlo hauetan laguntza ematea izango dute eginkizun:

a) Erakundeen ordezkaritza eta botere publikoekiko harremanak.

b) Komunikazioa, hedabideekiko harremanak eta herritarren arretaren kudeaketa.

c) Fiskaltzak estatistika-, informatika-, langile-, material-, informazio- eta dokumentazio-gaietan dituen antolaketa-beharrei eta funtzionamenduari buruzko proposamenak aztertu eta ebaluatu.

d) Oro har, Estatuko fiskal nagusiari, Estatuko Fiskaltza Nagusira atxikitako Salako fiskalei, Fiskalen Kontseiluari eta Salako Fiskalen Batzordeari laguntza emateko eginkizunetan, betiere Ikuskaritzari edo Idazkaritza Teknikoari ez badagozkio.

Bost. Estatuko Fiskaltza Nagusian dauden Salako fiskalek plantillak zehaztutako fiskal adskribatuak edukiko dituzte.

Salako fiskal horiek izendatzeko eta kargutik kentzeko araubidea Estatutu honetako hogeita hamaseigarren artikuluaren lehenengo apartatuan eta berrogeita batgarren artikuluaren lehenengo apartatuan ezarritakoa izango da.

Salako fiskalei adskribatutako fiskalak izendatzeko eta kargutik kentzeko araubidea hogeita hamaseigarren artikuluko hirugarren apartatuan ezarritakoa izango da.

Hamalaugarren artikulua.

Bat. Fiskalen Kontseilua, Estatuko fiskal nagusia buru delarik, honako hauek osatuko dute: Auzitegi Goreneko fiskalburuordeak, fiskalburu ikuskatzaileak eta edozein kategoriatako bederatzi fiskalek. Fiskalen Kontseiluko kide guztiak –Estatuko fiskal nagusia, Auzitegi Goreneko fiskalburuordea eta fiskal ikuskatzailea izan ezik– lau urterako hautatuko dira. Zerbitzu aktiboan dauden Fiskaltzako kideek hautatuko dituzte, erregelamenduan xedatzen den moduan eratutako hauteskunde-kolegio bakar bat osatuta.

Bi. Ezin izango dira Fiskalen Kontseiluko kide hautatu Ikuskaritza Fiskalean, Laguntza Unitatean eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Idazkaritza Teknikoan zerbitzuak eskaintzen dituzten fiskalak.

Hiru. Fiskalen Kontseiluak Osoko Bilkuran eta Batzorde Iraunkorrean jardun ahal izango du, eta gehiengo soil batez hartuko ditu erabakiak, eta, berdinketa egonez gero, Kontseiluko buruaren botoak erabakiko du.

Lau. Fiskalen Kontseiluak eginkizun hauek ditu:

a) Irizpide orokorrak prestatzea Fiskaltzaren ekintza-batasuna ziurtatzeko, haren organoen egiturari eta funtzionamenduari dagokienez.

b) Estatuko fiskal nagusiari aholku ematea, hark aurkeztutako gai guztietan.

c) Karguen izendapenari buruz behar diren proposamenen gaineko txostena egitea.

d) Karrera fiskaleko kideentzako maila-igoeretarako txostenak egitea.

e) Bere eskumenaren barruko diziplina- eta merezimendu-espedienteak ebaztea, eta bateraezintasunak, Estatutu honetan aipatuak, atzematea.

f) Fiskaltzako organoetako fiskalburuek diziplina-espedienteetan emandako ebazpenen kontra jarritako errekurtsoak ebaztea.

g) Eginkizun fiskalaren zerbitzuari eta jardunari buruz komeni diren erreformak eskatzea.

h) Ikuskaritza Fiskalaren urteko planak ezagutzea.

i) Fiskalak prestatzeko eta hautatzeko planak ezagutzea eta haien txostena egitea.

j) Fiskaltzaren egiturari, antolamenduari eta eginkizunei eragiten dieten lege-proiektuen edo erregelamendu-mailako arauen txostena egitea. Ondore horietarako, Fiskalen Kontseiluak dagokion txostena egin beharko du hogeita hamar egun balioduneko epearen barruan. Igorpen-aginduan txostena urgentziaz behar dela adieraziz gero, hamabost egun baliodun izango da epea.

k) Estatuko fiskal nagusiari haren eskumenari buruz egoki iritzitako eskaera eta eskabide guztiak egitea.

l) Datuen Babesa Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularra gehiengo osoz izendatzea.

Fiskalen Kontseiluaren barruan Berdintasun Batzorde bat gehitu beharko da, karrera fiskalean berdintasun-parametroak nola hobetu aztertzeko. Fiskalen Kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua zuzentzen dituen araudian zehaztuko da batzorde horren osaera.

Hamabosgarren artikulua.

Salako Fiskalen Batzordea, Estatuko fiskal nagusia buru delarik, honako hauek osatuko dute: Auzitegi Goreneko fiskalburuordeak eta Salako fiskalek. Idazkaritza Teknikoaren fiskalburuak egingo ditu idazkari-lanak.

Batzordeak doktrinaren eta teknikaren arloan laguntzen dio Estatuko fiskal nagusiari, legezko interpretazio eta jardunerako irizpide bateratuak osatzeko, kontsultak ebazteko, memoriak eta zirkularrak egiteko, Gobernuari aurkeztu beharreko proiektuak eta txostenak prestatzeko eta beste antzeko edozein egiteko, betiere Estatuko fiskal nagusiaren iritziz egokia bada batzordeak horren berri jaso eta azter dezan, bai eta Estatutu honen hogeita bosgarren artikuluan aurreikusitako kasuetan ere.

Hamaseigarren artikulua.

Autonomia-erkidegoetako Fiskal Nagusien Batzordea, Estatuko fiskal nagusia buru delarik, honako hauek osatuko dute: Auzitegi Goreneko fiskal nagusiak, fiskal nagusiek eta Idazkaritza Teknikoko fiskalburuak, zeinak idazkari-lanak egingo dituen. Haren eginkizuna izango da Estatuko lurralde osoan fiskaltzen jardun eta funtzionamenduaren batasuna eta koordinazioa bermatzea, betiere Estatutu honek Fiskalen Kontseiluari esleitutako eskumenak alde batera utzi gabe.

Aztertu beharreko gaia zein den, Fiskaltzako edozein kide deitu ahal izango da batzarrera.

Hamazazpigarren artikulua.

Auzitegi Goreneko Fiskaltza, Estatuko fiskal nagusia buru delarik, honako hauek ere osatuko dute: fiskalburuorde batek, Salako fiskalek eta plantillaren barruan erabakitako Auzitegi Goreneko fiskalek, zeinek bigarren kategoriakoak izan beharko baitute.

Auzitegi Goreneko fiskalburuordeak honako eginkizun hauek beteko ditu, alde batera utzi gabe Estatutu honek edo berau garatzen duen erregelamenduak esleitzen dizkion gainerakoak, edo Estatuko fiskal nagusiak eskuordetzen dizkionak:

a) Estatuko fiskal nagusia ordeztuko du hura ez dagoenean, ezinduta dagoenean edo kargua hutsik dagoenean.

b) Estatuko fiskal nagusiaren eskuordetza bidez zuzendu eta koordinatuko du Auzitegi Goreneko Fiskaltzaren ohiko jarduera.

Auzitegi Goreneko fiskalek Auzitegi horren eremuan beteko dituzte eginkizunak, eta, ondorioz, duten eginkizunaren garrantziari eta organo horren maila eta izaerari dagozkien begiramena, tratamendua eta ordainsarien araubidea izango dituzte.

Hemezortzigarren artikulua.

Fiskaltzak honako arau hauen arabera eratu eta antolatuko dira:

Bat. Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltza, Kontuen Auzitegiko Fiskaltza, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltza eta Fiskaltza Bereziak honako hauek osatuko dute: Salako fiskal batek, fiskalburuorde batek eta plantillaren barruan erabakitako fiskalek, zeinek bigarren kategoriakoak izan beharko baitute.

Kontuen Auzitegiko Fiskaltzak auzitegi horren Lege Organikoan xedatutakoaren arabera jardungo du.

Bi. Fiskaltza Juridiko Militarra honako hauek osatuko dute: Fiskaltza Togadunak, Auzitegi Militar Zentraleko Fiskaltzak eta Lurralde Auzitegi Militarretako Fiskaltzek. Fiskal Togadunak zuzenduko du Fiskaltza Togaduna, eta honako hauek osatuko dute, gutxienez: Jeneral Auditore batek eta Salako fiskal batek; karrera fiskalekoa izango da, eta Estatutu honen hamahirugarren artikuluan xedatutakoaren arabera izendatua. Auzitegi Militar Zentraleko Fiskaltza eta Lurralde Auzitegi Militarretako fiskaltzak Jurisdikzio Militarraren Eskumenari eta Antolaketari buruzko Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz eratu eta antolatuko dira.

Hiru. Autonomia-erkidegoetako fiskaltzak eta probintzia-fiskaltzak dagokien fiskalburuak zuzenduta egongo dira, eta honako hauek osatuko dituzte: fiskalburuorde batek, behar bezala jarduteko behar diren fiskal dekanoek, fiskaltzen neurriaren eta lan-bolumenaren arabera betiere, eta plantillak erabakitako gainerako fiskalek. Justizian eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetan autonomia-erkidegoko fiskal nagusiari laguntzeko unitateak sortu ahal izango dira, eta horien barruan autonomia-erkidegoko funtzionarioak sartu ahal izango dira, plantillak zehaztutako kopuruan, honako arlo hauetan laguntzeko lanak egiteko: estatistika, informatika, atzerriko hizkuntzak itzultzea, langileen kudeaketa edo Estatutu honen arabera fiskalek aginduta dituztenak ez beste batzuk. Autonomia-erkidegoko fiskal nagusiari dagokio autonomia-erkidegoko gobernuari jakinaraztea bere lurralde-eremuko fiskaltzek antolatzeko eta funtzionatzeko zer behar dituzten, bitarteko informatikoen, teknologia berrien eta gainerako bitarteko materialei dagokienez.

Fiskaltza horiek atal espezializatuak ere eduki ahal izango dituzte legez edo erregelamendu bidez zehazten diren arloetan, edo sortzen dituzten jarduketen berezitasuna edo bolumena dela-eta berariazko antolamendua behar dutenetan. Atal horiek fiskal dekano baten zuzendaritzapean eratu ahal izango dira, haien neurria dela-eta behar bezala jarduteko beharrezkoa dela iritziz gero, eta horietara fiskaltzako plantillako fiskal bat edo gehiago adskribatuko dira; lehentasuna izango dute, halere, lehendik bete dituzten eginkizunak, emandako edo gainditutako ikastaroak edo antzeko beste edozein inguruabar direla-eta arloan espezializatuta daudenek. Nolanahi ere, zerbitzuaren beharrek horrela eskatzen dutenean, beste eremu edo arlo batzuetan ere jardun ahal izango dute.

Dagozkien fiskalburuek esleitutako eginkizunak beteko dituzte atalek, dagokien arloaren eremuan, betiere Estatutu honetan, garatzen duen erregelamenduan eta Estatuko fiskal nagusiaren jarraibideetan xedatutakoari jarraikiz. Gainera, atal horietan sartuko dira Fiskaltza Berezien fiskal delegatuak lege honen hemeretzigarren artikuluan xedatutakoari jarraikiz hori egokia denean. Dagokion autonomia-erkidegoko fiskal nagusiari jakinarazi beharko dizkiote fiskaltzetan atal espezializatuei ematen dizkieten jarraibideak, baldin eta lurralde-eremu jakin bati eragiten badiote.

Nolanahi ere, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzan eta probintzia-fiskaltzetan Adingabeen Atal bat egongo da, eta horri aginduko zaizkio Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen Lege Organikoak Fiskaltzari esleitzen dizkion eginkizunak eta ahalmenak. Atal horiek autonomia-erkidegoetako fiskaltzetan eratu ahal izango dira, betiere haien eskumenek, lan-bolumenak edo zerbitzua hobeto antolatu eta emateko horrela eskatzen badute. Halaber, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atal bat egongo da probintzia-fiskaltzetan, eta atal horrek koordinatu edo, hala badagokio, zuzenean hartuko du bere gain Fiskaltzaren esku-hartzea emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiek eskumena esleitua duten prozedura penal eta zibiletan. Egitate horiekin lotuta jarraitzen dituzten prozeduren erregistroa egingo dute Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Atalean, era horretan fiskalek erregistro hori kontsultatu ahal izango dute eskumena esleitua duten prozedura batez arduratzen direnean, kasuan-kasuan egoki diren ondoreetarako.

Atal horiek autonomia-erkidegoetako fiskaltzetan eratu ahal izango dira, betiere haien eskumenek, lan-bolumenak edo zerbitzua hobeto antolatu eta emateko horrela eskatzen badute.

Probintzia-fiskaltzetan, sortzen dituzten jarduketen bolumena dela-eta berariazko antolaketa behar badute, bide-segurtasunaren eta lan-istripuen atalak eratu ahal izango dira.

Ingurumen Atal bat ere egongo da, eta espezializatuta egongo da honako hauei buruzko delituetan: lurralde-antolamendua; historia-ondarea babestea; natura-baliabideak eta ingurumena; flora, fauna eta etxe-abereak babestea, eta baso-suteak. Atal horiek autonomia-erkidegoetako fiskaltzetan eratu ahal izango dira, betiere haien eskumenek, lan-bolumenak edo zerbitzua hobeto antolatu eta emateko horrela eskatzen badute.

Lau. Baldin eta auzigaien bolumenak, probintzia baten barruko organo judizialen kopuruak edo Probintzia Auzitegiaren atal bat haren hiriburua ez beste egoitza batean sortzeak hala eskatzen badute, Estatuko fiskal nagusiak, Fiskalen Kontseiluari eta dagokion erkidegoko fiskal nagusiari entzun ondoren, Eremuko fiskaltzak eratzea proposatu ahalko dio Justiziako ministroari. Fiskalburu batek zuzenduko ditu fiskaltza horiek, eta plantillak erabakitako fiskalek osatuko dituzte. Eremuko Fiskaltza bat sortuko da Probintzia Auzitegitik kanpoko atal bat dagoen herri guztietan, eta egoitza duen tokiaren izena izango du. Eremuko fiskaltzek aztertuko dituzte haiei buruzko arauan aurreikusitako lurralde-eremuari dagozkion auzigaiak. Lurralde-eremu horrek barruti judizial bat edo batzuk hartu ahal izango ditu.

Baldin eta aurreko paragrafoan adierazitako inguruabarrak betetzen ez badira, baina organo judizialen sakabanaketa geografikoagatik, edo zerbitzua hobeto emateko beharrezkoa bada, Estatuko fiskal nagusiak, Fiskalen Kontseiluari eta dagokion erkidegoko fiskal nagusiari entzun ondoren, Probintzia Fiskaltzako Lurralde Atalak eratzea proposatu ahal izango dio Justiziako ministroari, eta probintzia bereko barruti bateko edo bat baino gehiagoko organo judizialak arduratuko dira horietaz. Atal horiek plantillak zehaztutako fiskalez osatuko dira eta fiskal dekano batek zuzenduko ditu. Estatutu honetan jasota dagoen moduan izendatuko da fiskal dekano hori, eta halaxe ere beteko ditu bere eginkizunak.

Aurreko bi paragrafoetan adierazitako bi inguruabar horiengatik berengatik, autonomia-erkidegoko fiskal nagusiak, dagozkien probintzietako fiskalburuei entzunik, Eremuko Fiskaltzak eta Lurralde Atalak eratzea proposatu ahal izango dio Estatuko fiskal nagusiari bere lurralde-eremuko fiskaltzetan.

Bost. Fiskaltzen eta Lurralde Atalen kopurua, halakorik balego, eta haien plantillak Errege Dekretuz finkatuko dira, aurreko apartatuetan ezarritako irizpideei jarraikiz, Justiziako ministroak proposatuta, Estatuko fiskal nagusiak txostena egin ondoren eta Fiskalen Kontseiluari entzunik.

Plantilla organiko horrek aurrekontu-aurreikuspenen ondoriozko mugak izango ditu, nolanahi ere, eta bost urtean behin berrikusiko da gutxienez, behar berrietara egokitzeko.

Sei. Manu honen hiru, lau eta bost apartatuetan aurreikusitako gaiei buruzko erabakiek, aldez aurretik, Justizia Administrazioaren giza baliabideen eta bitarteko materialen arloan eskumena duen autonomia-erkidegoko organoaren txostena eduki beharko dute.

18 bis

artikulua.

(Ezabatua)

18 ter artikulua.

(Ezabatua)

18 quater

artikulua.

(Ezabatua)

18 quinquies

artikulua.

(Ezabatua)

Hemeretzigarren artikulua.

Bat. Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak eskumena du organo judizial horri dagozkion auzigaiez arduratzeko, Estatutu honen xedapenekin bat etorriz beste Fiskaltza Berezi bati esleitzen zaizkionak izan ezik.

Bi. Drogen Aurkako Fiskaltza eta Ustelkeriaren eta Delinkuentzia Antolatuaren Aurkako Fiskaltza dira Fiskaltza Bereziak.

Hiru. Drogen Aurkako Fiskaltzak honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Zuzenean esku hartzea drogen, estupefazienteen eta gai psikotropikoen trafikoari buruzko edo trafiko horrekin lotutako kapitala zuritzeari buruzko prozedura guztietan, baldin eta, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 65. eta 88. artikuluei jarraikiz, Auzitegi Nazionalaren eta Instrukzioko Auzitegi Zentralen eskumena badira.

b) Estatutu honen bosgarren artikuluan xedatu den bezala ikertzea aurreko apartatuan aipatutako delituetakoren bat izateko zantzuak dituzten egitateak.

c) Fiskaltza guztien jarduketak koordinatzea legez kanpoko trafikoa eta trafiko horrekin zerikusia duten kapitalen zuritzea prebenitzeko eta zigortzeko. Auzitegi Militarretako fiskaltzak Drogen Aurkako Fiskaltzarekin elkarlanean arituko dira zentro, establezimendu eta unitate militarretan egindako egitateei dagokienez.

d) Agintari judizialekin elkarlanean aritzea baldintzapeko barkamena aplikatu zaien drogaren mende daudenen tratamendua kontrolatzeko, eta tratamendu horretan parte hartzen duten zentro onetsien aldetik behar diren datuak jasotzea.

Lau. Ustelkeriaren eta Delinkuentzia Antolatuaren Aurkako Fiskaltzak lege honen bosgarren artikuluan aipatzen diren eginbideak egingo ditu eta zuzenean esku hartuko du zigor-arloko prozesuetan, betiere, batean zein bestean, Estatuko fiskal nagusiaren arabera garrantzi bereziko kasuak badira, honako hauei dagokienez:

a) Herri Ogasunaren aurkako delituak, gizarte-segurantzaren aurkakoak eta kontrabando-delituak.
b) Prebarikazio-delituak.
c) Informazio pribilegiatuaren abusuaren edo erabilera bidegabearen delituak.
d) Ondasun publikoak bidegabe eralgitzea.
e) Legearen aurkako iruzurrak eta ordainarazpenak.
f) Influentzia-trafikoko delituak.
g) Funtzionario-eroskeriako delituak.
h) Funtzionarioei debekatutako negoziazioa.
i) Iruzur egiteak.
j) Zigortzeko moduko kaudimengabeziak.
k) Lehiaketa eta enkante publikoetan prezioak aldatzea.
l) Jabetza intelektualari eta industria-jabetzari, merkatuari eta kontsumitzaileei buruzko delituak.
m) Delitu sozietarioak.
n) Kapitalak zuritzea eta errezibitzearen pareko portaerak, betiere droga-trafiko edo terrorismoko delituekin duten lotura dela-eta beste Fiskaltza Bereziei ez badagokie portaera horietaz arduratzea.
ñ) Ustelkeria-delituak nazioarteko merkataritza-transakzioetan.
o) Ustelkeria-delituak sektore pribatuan.
p) Aurrekoei lotutako delituak.
q) Era guztietako negozio juridikoak, transakzioak edo ondasunen, baloreen edo kapitalen mugimenduak, fluxu ekonomikoak edo ondare-aktiboak ikertzea, baldin eta, zantzuen arabera, erakunde kriminal antolatuen jarduerarekin edo delituzko jardueren aprobetxamendu ekonomikoarekin lotuta daudela ematen badu, bai eta jarduera horiei lotutako delituak edo jarduera horien ondoriozko delituak ikertzea ere; betiere droga-trafiko edo terrorismoko delituekin duten lotura dela-eta Drogen Aurkako Fiskaltzari edo Auzitegi Nazionalari ez badagokio portaera horietaz arduratzea.

Bost. Prozedura kopuruak horrela eskatzen duenean, Estatuko fiskal nagusiak Fiskaltza Berezien fiskal delegatu bat edo batzuk izendatu ahal izango ditu edozein fiskaltzatan, eta haien barruan sartuko dira horiek. Izendapen hori egingo da Fiskalen Kontseiluari entzunik, eta dagokion Fiskaltza Bereziko eta Lurralde Fiskaltzako fiskalburuek txostena egin ondoren, eskaera egin duten Lurralde Fiskaltzako plantillako fiskalen artean, eta arloko espezializazioa egiaztatu beharko dute erregelamenduz ezarrita dagoen moduan. Baldin eta Lurralde Fiskaltzan atal espezializatu bat badago aurreko artikuluan xedatutakoari jarraikiz eratuta, eta haren jardun-eremua guztiz edo zati batez bat badator Fiskaltza Bereziak eskumena duen gaiarekin, atal horren barruan sartuko da fiskal delegatua.

Fiskaltza Bereziko fiskalburuak, horrela izendatutako fiskalei dagokienez eta bere eskumenaren eremu espezifikoan bakarrik, Fiskaltzako gainerako organoetako fiskalburuei dagozkien ahalmen eta betebehar berak izango ditu. Estatuko fiskal nagusiak oro har ematen dituen jarraibideak alde batera utzi gabe, izendapen-dekretuak fiskal delegatuen eginkizunak eta jardun-eremua zehaztuko ditu, eta Fiskaltza Bereziaren eskumeneko auzigaietan zer dedikazio-maila duten zehaztuko du. Nolanahi ere, fiskal delegatuek beren ardurapean hartzen dituzten gaien berri eman beharko diote beren eginkizunak betetzen dituzten organoko fiskalburuari.

Sei. Egoki funtzionatzeko, Polizia Judizialeko unitateak eta modu iraunkorrean edo noizbehinka haiei laguntzeko behar diren profesional eta aditu guztiak adskribatu ahal izango zaizkie Fiskaltza Bereziei.

Hogeigarren artikulua.

Bat. Estatuko Fiskaltza Nagusian Emakumeen Aurkako Indarkeriaren arloko fiskal bat egongo da, Salako fiskalaren kategoriakoa, eta honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren Bosgarren artikuluak aipatzen dituen eginbideak egitea, eta zuzenean esku hartzea Estatuko fiskal nagusiaren arabera garrantzi berezia duten zigor-arloko prozesuetan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 87 ter 1. artikuluan jasotako genero-indarkeriazko egintzen delituei dagokienez.

b) Estatuko fiskal nagusiak eskuordeturik, esku hartzea Botere Judizialaren Lege Organikoaren 87 ter 2. artikuluan jasotako prozesu zibiletan.

c) Emakumeen Aurkako Indarkeriako atalen jarduketa gainbegiratzea eta koordinatzea, eta haiei txostenak eskatzea, haiek integratuta dauden fiskaltzetako fiskalburua jakinaren gainean jarrita.

d) Genero-indarkeriako fiskaltzek darabiltzaten jarduera-irizpideak koordinatzea; horretarako, dagozkion jarraibideak ematea proposatu ahal izango dio Estatuko fiskal nagusiari.

e) Sei hilean behin txosten bat prestatu eta Estatuko fiskal nagusiari aurkeztea, Auzitegi Goreneko Salako Fiskalen Batzordeari eta Fiskalen Kontseiluari bidal diezaien, genero-indarkeriaren arloan Fiskaltzak jarraitutako prozedurei eta egindako jarduerei buruzkoa.

Egoki jardun ahal izateko, modu iraunkorrean edo noizbehinka haiei laguntzeko behar diren profesional eta adituak adskribatuko zaizkio.

Bi. Estatuko Fiskaltza Nagusian fiskal bat egongo da lurralde-antolamenduari eta historia-ondarearen babesari buruzko eta ingurumenari eta baso-suteei buruzko delituen kontrakoa, Salako fiskalaren kategoriarekin, eta eginkizun hauek beteko ditu:

a) Bosgarren artikuluan aipatzen diren eginbideak egitea eta esku hartzea, zuzenean edo delegatuei emandako jarraibideen bitartez, Estatuko fiskal nagusiaren arabera garrantzi berezia duten zigor-arloko prozesuetan, lurralde-antolamenduari, historia-ondarearen babesari, natura-baliabideei eta ingurumenari, floraren, faunaren eta etxe-abereen babesari eta baso-suteei buruzkoetan.

b) Herri-ekintza egikaritzea edozer motatako prozeduretan, zuzenean edo delegatuei emandako jarraibideen bitartez, herri-ekintza hori aurreikusia dagoenean legeetan eta ingurumen-arloko arauetan, eta dagozkion erantzukizunak eskatzea.

c) Ingurumeneko atal espezializatuen jarduera gainbegiratzea eta koordinatzea eta dagozkien txostenak eskatzea, eta ingurumen-arloko fiskalen sarea zuzentzea Estatuko fiskal nagusiaren eskuordetzaz.

d) Ingurumen-arloko fiskaltzak koordinatzea eta jarduera-irizpideak bateratzea; horretarako, fiskal nagusiari proposatu ahal izango dio dagozkion jarraibideak eman ditzala, eta bildu ditzala, hala dagokionean, atal espezializatuak osatzen dituzten fiskalak.

e) Urtean behin txosten bat prestatzea eta Estatuko fiskal nagusiari aurkeztea, ingurumen-arloan Fiskaltzak jarraitu dituen prozedurei eta egin dituen jarduerei buruzkoa; txosten hori gehitu egingo zaio Estatuko fiskal nagusiak aurkezten duen urteko txostenari.

Egoki jardun dezan, Guardia Zibileko Natura Babesteko Zerbitzuaren unitate bat adskribatuko zaio, eta orobat, hala badagokio, ingurumen-eskumenak dituzten gainerako segurtasun-indar eta -kidegoetako behar adina kide, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko Legearekin bat etorriz (1986ko martxoaren 13ko 2/1986 Legea). Era berean, modu iraunkorrean edo noizbehinka laguntza emateko behar diren profesional eta adituak ere adskribatu ahal izango zaizkio. Fiskaltzak laguntza eskatu ahal izango die dagozkien administrazio publikoetako baso- edo ingurumen-agenteei, halako kolektiboek legez esleituak dituzten eginkizunen barruan.

Hiru. Orobat, Estatuko Fiskaltza Nagusian Salako fiskal espezialistak egongo dira, zeinak arduratuko baitira adingabeen babes eta erreformatzearen arloan Fiskaltzaren jarduera koordinatzeaz eta gainbegiratzeaz, eta baita beste arlo batzuetan ere, halako plazak sortzeko premia ikusten badu Gobernuak, Justiziako ministroaren proposamenez eta Estatuko fiskal nagusiari entzunik, betiere aurrez Fiskalen Kontseiluak txostena eginik. Salako fiskal horiek artikulu honen aurreko apartatuetan aurreikusitakoen gisako ahalmenak izan eta eginkizunak beteko dituzte zeinek bere espezialitatean, eta halaber Estatuko fiskal nagusiak hala dagokionean ematen dizkienak, dagozkien lurralde-organoetako fiskalburuen eskudantziak eragotzi gabe.

Lau. Estatuko Fiskaltza Nagusian, era berean, Datuen Babesa Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Unitatea egongo da, eta hark egikarituko ditu, helburu jurisdikzionalekin, datuak babesteko agintaritzari dagozkion eskumenak Fiskaltzak egindako datuen tratamenduari dagokionez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236 octies artikuluan ezarritakoaren arabera, bere eskumenen eta ahalmenen esparruan. Haren erregulazioa Botere Judizialaren Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera egingo da, aplikagarria den guztian.

Pertsona titular bat izendatuko da Datuen Babesa Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen buru, Fiskalen Kontseiluaren Osoko Bilkuraren gehiengo osoz. Gaitasun aitortuko legelarien artean hautatuko da; legelari horiek, gutxienez, hamabost urteko jardun profesionala izan beharko dute, bai eta, datuen babesaren arloan, egiaztatutako ezagutza eta esperientzia ere.

Datuen Babesa Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularraren agintaldia bost urtekoa izango da, eta ezin izango da berritu. Agintaldian zehar, hala badagokio, zerbitzu berezietako egoeran egongo da, eta karguari datxezkion eginkizunak baino ez ditu beteko. Gaitasunik ezagatik edo bere betebeharrak modu larrian ez betetzeagatik bakarrik kendu ahal izango da bere kargutik, Osoko Bilkuran gehiengo oso bidez hala erabakitzen bada.

Datuen Babesa Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularraren bateraezintasunen araubidea Estatuko Fiskaltza Nagusiaren organo teknikoen zerbitzuko fiskalentzat ezarritako berbera izango da. Datuen Babesa Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularrak erabateko independentziaz eta neutraltasunez bete beharko ditu bere eginkizunak.

Datuen Babesa Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen titularrak nahiz Unitateari atxikitako gainerako langileek sekretu profesionalaren betebeharra izango dute, bai agintaldian, bai ondoren, beren eginkizunak betetzean eta beren eskuduntzak egikaritzean ezagutu dituzten informazio konfidentzialei dagokienez.

Sekretu profesionalaren betebehar hori aplikatuko zaio bereziki pertsona fisikoek Datuen Babesa Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Unitateari ematen dioten informazioari, araudi honetako arau-hausteen arloan.

Datuen Babesa Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko Unitatearen osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez arautuko dira. Nolanahi ere, Unitateak bere eginkizunak behar bezala betetzeko behar dituen giza baliabide eta baliabide material guztiak izatea zaindu beharko da.

Hogeita batgarren artikulua.

Bat. Auzitegi Goreneko Fiskaltzak, Konstituzio Auzitegiaren aurrekoak, Kontuen Auzitegikoak, Fiskaltza Togadunak, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak eta Fiskaltza Bereziek Madrilen dute egoitza, eta Estatuaren lurralde osora hedatzen dituzte beren eginkizunak beren eskumeneko diren auzigaietan. Auzitegi Militar Zentraleko Fiskaltzak ere Espainiako hiriburuan izango du egoitza, eta auzitegi horren aurrean eta epaitegi togadun militar zentralen aurrean beteko ditu bere eginkizunak. Lurralde Auzitegi Militarretako fiskaltzen egoitza, berriz, dagokien lurralde-auzitegi militarrak egoitza duen lekuan egongo da, eta haren eskumen-eremuan beteko dituzte eginkizunak.

Bi. Autonomia-erkidegoetako fiskaltzen egoitza dagokien Justizia Auzitegi Nagusiak egoitza duen lekuan egongo da, eta haren eskumen-eremuan beteko dituzte eginkizunak.

Jurisdikzioa autonomia-erkidegoko probintzia batera edo gehiagotara mugaturik duten salak baldin badira edo jartzen badira Justizia Auzitegi Nagusietan, aurrez autonomia-erkidegoko fiskal nagusiak proposamena edo txostena eginik, Estatuko fiskal nagusiak Justiziako ministroari proposatu ahal izango dio, Fiskalen Kontseiluari entzunik, era dezala bere egoitzan autonomia-erkidegoko Fiskaltza Nagusiaren lurralde-atal bat. Proposamen horren berri emango zaio justizia-eskumenak dituen autonomia-erkidegoari, haiek balia ditzan.

Hiru. Probintzia Auzitegiak egoitza duen lekuan izango dute probintzia-fiskaltzek egoitza, eta probintziako organo judizial guztietara zabalduko dituzte beren eginkizunak, non eta, Estatutu honen arabera, eskumena Fiskaltzako beste organo batek ez duen. Orobat arduratuko dira probintziaz gaineko lurralde-eremuko organo pertsona bakarrekoen eskumen diren auzigaiez, hala xedatzen badute Estatuko fiskal nagusiak, Fiskalen Kontseiluari entzunik, eta autonomia-erkidegoko fiskal nagusiak.

Probintzia bakarreko autonomia-erkidegoei dagokienez, duten jardueraren bolumenari erreparatuta, Estatuko fiskal nagusiaren proposatuta, Fiskalen Kontseiluari eta autonomia-erkidegoko fiskal nagusiari entzunda, Gobernuak agindu ahalko du Autonomia Erkidegoko Fiskaltzak Probintzia Fiskaltzaren eginkizunak ere har ditzala bere gain.

Lau. Auzigai kopuruagatik, organo judizialen kopuruagatik edo hiriburuaz besteko egoitza batean Probintzia Auzitegiaren atal bat sortu delako, Eremuko fiskaltzek sortzea dagokien probintziaz azpiko lurralde-eremuan beteko dituzte beren eginkizunak, probintzia horretako barruti judizial bat edo gehiago hartzen dutela beren barruan, eta haiek ezartzen dituen arauak zehazten duen lekuan dutela egoitza.

Bost. Fiskaltzako kideek beren fiskaltzaren lurraldeko edozein lekutan jardun dezakete eta era daitezke.

Hala ere, auzigaien kopuruak edo zailtasunak hala eskatzen duenean, Estatuko fiskal nagusiak, ofizioz edo autonomia-erkidegoko fiskal nagusiak proposatuta, eta Fiskalen Kontseiluari eta eraginpeko organoetako fiskalburuei entzunda, agindu ahal izango du fiskal bat edo gehiago bidal daitezela, aldi baterako, fiskaltza jakin batera. Era berean, Estatuko fiskal nagusiaren baimenarekin, edozein fiskalek jardun ahal izango du Estatuko lurraldeko edozein lekutan.

Sei. Artikulu honetan xedatutakoak ez du eragozten ezen, beren legezko egoitzaz kanpo eratzen direnean auzitegi eta epaitegiak, edo haien eginkizunak betetzeak hala eskatzen duenean, Fiskaltza, bere kideen bitartez, dagokion fiskaltzarenaz besteko egoitza duen organo judizial baten aurrean eratu ahal izatea.

Hogeita batgarren bis artikulua.

Europako Fiskaltzaren eta Espainiako Fiskaltzaren artean desadostasunik egonez gero Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko 2017/1939 (EB) Erregelamenduaren 25.6 artikuluan aipatzen diren eskuduntzei dagokienez, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren titularrak behin betiko erabakiko du Salako Fiskalen Batzordeari entzun ondoren, lege honen 15. artikuluan aurreikusitako moduan.

II. KAPITULUA

Fiskaltzaren batasuna eta mendekotasuna

Hogeita bigarren artikulua.

Bat. Fiskaltza bakarra da Estatu osorako.

Bi. Estatuko fiskal nagusia da Fiskaltzako buru nagusia eta haren ordezkaria Espainiako lurralde osoan. Berari dagokio zerbitzuari eta erakundearen barne-ordenari komeni zaizkion aginduak eta jarraibideak ematea eta, oro har, Fiskaltzaren zuzendaritza eta ikuskaritza.

Hiru. Estatuko fiskal nagusiak Salako presidenteei eskuordetu ahal izango dizkie bere eskumeneko arloarekin zerikusia duten zenbait eginkizun. Eskuordetze-egintzak zehaztutako terminoetan eta hark zehaztutako mugekin hartuko dituzte eginkizun horiek Salako fiskal delegatuek. Eskuordetze-egintza ezezta egin daiteke, eta, betiere, amaitu egingo da fiskal nagusia kargugabetzen denean. Muga horien barruan, Salako fiskalek Estatuko fiskal nagusiari proposatu ahal izango dizkiote beharrezko deritzoten zirkularrak eta jarraibideak; parte hartu ahal izango dute fiskal espezialistak prestatzeko irizpideak zehazten; eta Estatu mailan koordinatu ahal izango dute fiskaltzen jarduera, dagozkien lurralde-organoetako fiskalburuen ahalmenak eragotzi gabe.

Lau. Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek, bakoitzak bere fiskaltza zuzentzeaz gain, dagokien autonomia-erkidego osoan jardungo dute, beren gain hartuko dute erkidegoan Fiskaltzaren ordezkari eta buru izatea, hargatik eragotzi gabe Estatuko fiskal nagusiaren eskudantziak. Ondorioz, beren lurraldeko Fiskalburuen Batzordeko lehendakari izango dira, eta haren barruan berek beteko dituzte Estatutu honen hamaikagarren, hogeita batgarren, hogeita bosgarren eta hogeita seigarren artikuluetan aurreikusitako eginkizunak, Estatuko fiskal nagusiak eskuordetzen dituenak eta orobat lege honen edo berau garatzen duen erregelamenduaren arabera diziplinaren arloan dagozkionak. Hogeita batgarren artikuluaren 3. apartatuan aipatutako probintzia bakarreko autonomia-erkidegoei dagokienez, fiskal nagusiak bere gain hartuko ditu, orobat, Estatutu honen edo berau garatzen duten arauen arabera Probintzia Fiskaltzako fiskalburuari dagozkion funtzioak.

Bost. Organo bakoitzeko fiskalburuak organoko zuzendaritza bereganatuko du eta Fiskaltzaren ordezkari gisa jardungo du beti, hierarkiako nagusien eta Estatuko fiskal nagusiaren mendean.

Organo bakoitzeko fiskalburuei dagozkie honako lan hauek:

a) Plantillako fiskalen artean zerbitzua eta lanaren banaketa antolatzea, eta Adingabeen Ataleko kideen adskripzioa antolatzea, Fiskaltza Batzordeari entzunik.

b) Bere eskumeneko baimenak eta lizentziak ematea.

c) Diziplina-ahalmena baliatzea, Estatutu honek eta beronen erregelamenduak ezartzen duten moduan.

d) Ordainsarien, merezimenduen eta bidezko diren ohorezko aipamenen proposamenak egitea.

e) Estatutu honek edo beste xedapen batzuek ematen dizkioten gainerako ahalmenak baliatzea.

Apartatu honetan aurreikusitakoak ez ditu eragozten Jurisdikzio Militarraren Eskumen eta Antolaketarako Lege Organikoaren (1987ko uztailaren 15eko 4/1987) 92. artikuluak Defentsa Ministerioari esleitzen dizkion ahalmenak.

Sei. Fiskalburuordeak, halakorik den fiskaltzetan, fiskalburuak eskuordetzen dizkion zuzendaritza- eta koordinazio-funtzioak beteko ditu, eta hura ordeztuko du absentzia, hutsaldia edo ezintasuna gertatzen denean.

Zazpi. Probintzia-fiskaltzetako fiskalburuak, hierarkiaz, autonomia-erkidegoko fiskal nagusiaren mende egongo dira, eta, hura buru dutela, autonomia-erkidegoko Fiskalburuen Batzordeko kide izango dira.

Zortzi. Eremuko fiskaltzetako fiskalburuak, hierarkiaz, probintzia-fiskaltzetako fiskalburuen mende egongo dira. Absentzia, hutsaldia edo ezintasuna gertatuz gero, Eremuko Fiskaltzako fiskal dekanoetan antzinakoenak ordeztuko ditu, edo, bestela, Probintzia Fiskaltzako fiskalburuak berak edo ordezpena eragiten duen arrazoiak dirauen bitartean hark eskuordetzen duen pertsonak.

Bederatzi. Fiskal dekanoek fiskaltza-ataletako zuzendaritza- eta koordinazio-lanak egingo dituzte, probintziako fiskalburuaren eta hala badagokio autonomia-erkidegoko fiskal nagusiaren jarraibideei jarraikiz, eta haiek eskuordeturik.

Hamar. Probintzia Fiskaltzako fiskalburuordeak, eremuko fiskalburuek eta fiskal dekanoek osatuko dute Probintzia Fiskaltzako Koordinazio Batzordea. Aldian behin egingo da batzorde horretarako deia, probintziako fiskalburuak zuzenduko du, eta haren eginkizuna izango da Fiskaltzak lurralde-eremu horretan duen zuzendaritza koordinatzea.

Hogeita hirugarren artikulua.

Fiskaltzako kideak agintaritza dira, ondore guztietarako, eta erakundearen ordezkari gisa jardungo dute beti. Fiskal bat bere jarduera betetzen ari den edozein unetan, edo Fiskaltzako kideen artean auzigaiak banatzeko sistemaren arabera esleitua duen jarduera hasi baino lehen, hierarkiako nagusi hurrenak, ebazpen arrazoitu baten bidez, beretzat hartu ahal izango du auzigaia, edo beste fiskal bat izendatu hura aztertzeko. Desadostasunik baldin bada, hierarkian bien gainetik dagoenak ebatziko du. Ordeztearen berri emango zaio beti Fiskalen Kontseiluari, eta hark bere iritzia eman ahal izango du.

Hogeita laugarren artikulua.

Bat. Irizpide-batasunari eusteko, garrantzi edo zailtasun bereziko auzigaiak aztertzeko edo bere funtzioari dagozkion gaiei buruz duen jarrera finkatzeko, fiskaltza bakoitzak kide guztien batzarra egingo du aldian behin. Fiskaltza Berezien batzarretara haietako fiskal delegatuak deitu ahal izango dira.

Gehiengoaren erabakiek txosten-izaera izango dute, eta, eztabaida librearen ostean, fiskalburuaren irizpidea nagusituko da. Hala ere, bildutakoen gehiengoak adierazitakoaren kontrakoa bada iritzi hori, bi iritziak hierarkiako nagusiaren esku jarri beharko ditu. Hierarkiako nagusiak erabakia hartzen duen arte, gai eztabaidatuak hala eskatzen badu, fiskal nagusiaren irizpideak betearazpen-indarra izango du behar-beharrezko den hartan, eta hartan bakarrik.

Bi. Aurreko apartatuan adierazitako xedearekin, Auzitegi Goreneko Fiskaltza osatzen duten atalei adskribatutako fiskalek Ataleko Batzarrak egingo dituzte, bakoitzean bere Salako fiskala dela buru. Fiskalburuaren irizpidea ez badator bat batzordeko kide gehienen iritziarekin, Estatuko fiskal nagusiak erabakiko du, aurrez Fiskalen Kontseiluari edo Salako Fiskalen Batzordeari entzunik, dagozkien eginkizunen eremuaren arabera.

Salako fiskal batek baino gehiagok osatutako burutza duten Auzitegi Goreneko atalek aukera izango dute atal bakoitza osatzen duten antolaketa-unitateetan banatutako fiskalak biltzen dituzten batzarrak egiteko. Hala ere, garrantzi edo zailtasun bereziko auzigaiak eta irizpide-batasunari eragiten diotenak eztabaidatzeko, Atalaren Batzordea bildu beharko da, antzinatasun handieneko Salako fiskala dela buru. Apartatu honetako lehen paragrafoan aurreikusitakoaren ondoreetarako, nahikoa izango da atala osatzen duten Salako fiskaletako bakar batek izatea gehiengoak ez bezalako iritzia.

Atalen jarduera estatistikoaren kontu emateko eta zerbitzu orokorren antolaketari eragin liezaioketen auzigaiak aztertzeko, fiskalek Auzitegi Goreneko Fiskalen Batzarra egingo dute. Estatuko fiskal nagusia izango da batzar horietako burua, eta Auzitegi Goreneko fiskalburuordeak ordeztu ahal izango du.

Hiru. Artikulu honen lehen apartatuan aurreikusitako Fiskalen Batzarrak alde batera utzi gabe, probintzietako fiskalburuek Hogeita bi.Hamar artikuluan aurreikusitako koordinazio-batzarretara deitu ahal izango dute, zerbitzuetako zuzendaritzari eta koordinazioari buruzko gaiak aztertzeko; ezein kasutan ezin izango dituzte Batzorde Orokorraren eginkizunak ordeztu.

Era berean, irizpide-batasunari eusteko edo bere eginkizunei dagozkien gaiei buruz jarrera finkatzeko, autonomia-erkidegoetako fiskalburuek, hierarkiako nagusi gisa, dei egin ahal izango dute Fiskalen Batzordea bil dadin, eta hartan parte hartuko dute lurralde-esparruetan Probintzia Fiskaltzako buru direnek.

Lau. Fiskalen Batzarrak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke. Ohikoak sei hilean behin egingo dira gutxienez. Haietarako gai-zerrenda fiskalburuak prestatuko du, baina hartan sartu beharko dira orobat beste gai batzuk, idatziz eta batzarra hasi baino lehen aurkeztuak destinoa Fiskaltzan duten fiskalen bosten batek, gutxienez. Orobat eztabaidatu ahal izango da, gai-zerrendatik kanpo, batzarrera joandako edozeinek proposatu eta fiskalburuak eztabaidagai jartzea erabakitako auzigaiei buruz.

Ezohiko batzarrerako deia egingo da egokiago ikusten bada, gaiaren urgentzia edo konplexutasunagatik, ohiko batzarraren zain ez egotea. Deialdia, zeinak gai-zerrenda agertuko baitu, fiskalburuak egin beharko du, bai bere kabuz, bai Fiskaltzan destinatutako fiskalen heren batek izenpetutako mozio baten bitartez.

Batzarretara joatea nahitaezkoa dute fiskal guztiek, osaeraren arabera, non eta fiskalburuak balioetsitako absentzia justifikatu ez bada. Ordezko fiskalak batzarretara joango dira fiskalburuak deitzen dituenean, eta hitz egiteko aukera izango dute, baina botorik ez.

Hogeita bosgarren artikulua.

Estatuko fiskal nagusiak agindu eta jarraibideak eman ahal izango dizkie mendekoei, bai orokorrak edo bai gai jakin batzuei buruzkoak, hala komeni bada zerbitzurako eta haiek beren eginkizunak betetzeko. Jarraibide horiek Gobernuko edozein kide zuzenean ukitzen duten gaiei buruzkoak direnean, aurrez Salako Fiskalen Batzordeari entzun beharko dio fiskal nagusiak.

Fiskaltzako kideek Estatuko fiskal nagusiari jakinaraziko dizkiote beren garrantzi edo nabarmentasunagatik hark jakin beharreko bere zereginari dagozkion egitateak. Paragrafo honetan eta aurrekoan aipatzen diren agindu, jarraibide eta jakinarazpenak hierarkiako nagusiaren bidez egingo dira, non eta kasuaren urgentziak ez duen eskatzen zuzenean egitea; hala egiten bada, gerora jakinaraziko zaio.

Antzeko ahalmenak izango dituzte autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek beren lurralde-eremuko fiskalburuei dagokienez, eta halaber batzuek eta besteek mendean dituzten Ministerioko kideei dagokienez.

Zerbitzuari eta bere eginkizunetako jarduerari buruzko agindu edo jarraibideren bat jasotzen badu fiskalak, gai zehatzen bati buruz, haien arabera jokatu beharko du bere ebazpenetan, baina libreki jardun ahal izango du ahozko parte-hartzeetan justiziaren onerako egoki deritzon guztian.

Hogeita seigarren artikulua.

Estatuko fiskal nagusiak bere aurrera deitu ahal izango du Fiskaltzako edozein kide, bere txostenak zuzenean jasotzeko eta egoki deritzon jarraibideak emateko; kasu horretan, dagokion fiskalburuari helaraziko dizkio jarraibide horiek. Estatuko fiskal nagusiak Fiskaltzako kideetako edozein izendatu ahal izango du auzigai jakin batean jardun dezan, Fiskaltza esku hartzeko legitimatuta dagoen jurisdikzio-organoetako edozeinen aurrean, Fiskalen Kontseiluari entzunik.

Hogeita zazpigarren artikulua.

Bat. Fiskal batek agindu edo jarraibide bat jaso eta hura legez kontrakoa dela baderitzo, edo beste edozein arrazoirengatik ez dela bidezkoa, hala jakinaraziko dio bere fiskalburuari, txosten arrazoitu baten bitartez. Harena baldin bada agindua edo jarraibidea, eta ez badie nahikoa irizten emandako arrazoiei, Fiskaltza Batzordeari planteatuko dio gaia, eta, hark bere iritzia adierazten duenean, behin betiko ebatziko du, berriz aztertu edo berretsita.

Goragoko batena baldin bada, hari bidaliko dio txostena, eta hark, ez baditu onartzen emandako arrazoiak, modu berean ebatziko du, aurrez Fiskaltza Batzordeari entzunik. Estatuko fiskal nagusiarena bada agindua, Salako Fiskalen Batzordeari entzunik ebatziko du hark.

Bi. Nagusiak bere jarraibideak berresten baditu, idatzi arrazoitu baten bidez egingo du hori, berariaz aipatuz haiek betetzeak ekar litzakeen erantzukizunak; edo, bestela, beste fiskal baten esku utziko du auzigaia aztertzea.

Hogeita zortzigarren artikulua.

Fiskaltzako kideak ezin izango dira ezetsi. Esku hartzeaz abstenitu egingo dira Botere Judizialaren Lege Organikoan epaile eta magistratuentzat ezarrita dauden abstentzio-kausetakoren batek eragiten dien auzietan, aplikatzekoa zaien neurrian. Auzi horietan parte diren alderdiek dena delako fiskalaren goragoko nagusiarengana jo ahal izango dute eta eskatu ezen, aipaturiko kasuetan, agindu dadila ez dutela prozesuan parte hartuko.

Estatuko fiskal nagusia baldin bada, Salako Fiskalen Batzordeak ebatziko du, Auzitegi Goreneko fiskalburua dela presidente.

Erabaki horien aurka ez da errekurtsorik jartzerik izango.

III. TITULUA

Estatuko fiskal nagusia, autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiak eta karrera fiskala

I. KAPITULUA

Estatuko fiskal nagusia

Hogeita bederatzigarren artikulua.

Bat. Erregeak izendatuko du Estatuko fiskal nagusia, Gobernuak proposaturik, aurrez Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari entzunik, gaitasun-sonaren jabe diren eta lanbidean hamabost urtez baino gehiagoz jardun diren espainiar legelarien artetik.

Bi. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostena jasotakoan, Gobernuak Diputatuen Kongresuari jakinaraziko dio proposamena, xedatu ahal izan dezan hautatutako pertsonak ganberan dagokion batzordearen aurrean agerraldia egin dezala, haren erregelamenduak aurreikusten duen moduan, proposatutako hautagaiaren merezimenduak eta egokitasuna balioesteko.

Hiru. Izendatutakoan, Estatuko fiskal nagusiak legeak aurreikusten duen zia edo promesa egingo du Erregearen aurrean, eta kargua hartuko du Auzitegi Gorenaren osoko bilkuran.

Hogeita hamargarren artikulua.

Estatuko fiskal nagusiak agintaritza-izaera izango du Espainiako lurralde osoan, eta haren goi-karguari dagozkion errespetua eta begiramenak gordeko eta gordearaziko zaizkio. Ekitaldi ofizialetan, Auzitegi Goreneko presidentearen hurrengo lekua beteko du.

Hogeita hamaikagarren artikulua.

Bat. Estatuko fiskal nagusiaren kargualdiak lau urte iraungo du. Kargualdia amaitu baino lehen, arrazoi hauengatik bakarrik kendu ahal izango da kargutik:

a) Berak hala eskatuta.
b) Lege honetan ezarritako bateraezintasun edo debekuetakoren bat izateagatik.
c) Kargurako ezgai bihurtzen duen ezintasun edo gaixotasunagatik.
d) Bere eginkizunen ez-betetze larri edo jarraituagatik.
e) Proposatu zuen Gobernuak kargua uzten duenean.

Bi. Estatuko fiskal nagusiaren kargualdia ezin izango da berritu, salbu eta titularra karguan bi urte baino gutxiago izan den kasuetan.

Hiru. Ministroen Kontseiluak erabakiko du aurreko zenbakiko a), b), c) eta d) apartatuetan aipatutako kargutik kentzeko arrazoiak dauden ala ez.

Lau. Estatuko fiskal nagusiari aplikatu ahal izango zaizkio Fiskaltzako gainerako kideentzat ezarritako bateraezintasunak, hargatik eragotzi gabe maila bereko beste xedapen batzuek ematen dizkieten ahalmen edo eginkizunak.

Bost. Ordainsarien araubidea Auzitegi Goreneko presidentearena bera izango du.

Sei. Karrera fiskaleko kide bat izendatzen bada Estatuko fiskal nagusi, zerbitzu berezien egoeran gelditukо da.

II. KAPITULUA

Karrera fiskala, hura osatzen duten kategoriak eta hartako destinoak betetzea

Hogeita hamabigarren artikulua.

Diren fiskal-kategoriek osatzen dute karrera fiskala, kidego bakar eta hierarkikoki antolatu gisa.

Hogeita hamahirugarren artikulua.

Bat. Karrera fiskaleko kideak karrera judizialeko kideekin parekatuta daude ohore, kategoria eta ordainsariei dagokienez.

Bi. Fiskaltzako kideak, joaten diren ekitaldi ofizialetan, agintari judizialaren hurrengo lekua hartuko dute.

Auzitegi eta epaitegietako gobernu-bileretara joan behar dutenean, buru egiten duenaren hurrengo lekua hartuko dute.

Hogeita hamalaugarren artikulua.

Hauek dira karrera fiskaleko kategoriak:

1. Lehena, Auzitegi Goreneko Salako fiskalak, goi-auzitegiko magistratuekin parekatuak. Auzitegi Goreneko fiskalburuordeak salako presidentearen kontsiderazioa izango du.
2. Bigarrena, Fiskalak, magistratuekin parekatuak.
3. Hirugarrena, abokatu fiskalak, epaileekin parekatuak.

Hogeita hamabosgarren artikulua.

Bat. Lehenbiziko kategoriakoa izan behar da honako destino hauetan jarduteko:

a) Auzitegi Goreneko fiskalburuorde; gainera, hiru urteko antzinatasuna izan beharko du kategoria horretan.
b) Fiskalburu ikuskatzaile.
c) Idazkaritza Teknikoko fiskalburu.
d) Laguntza Unitateko fiskalburu.
e) Auzitegi Nazionaleko fiskalburu.
f) Fiskaltza Berezietako fiskalburu.
g) Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzako fiskalburu.
h) Kontuen Auzitegiko fiskalburu.
i) Auzitegi Goreneko Salako fiskal.
j) Fiskaltza Togaduneko Salako fiskal.
k) Estatutu honen xedapenen arabera plantillak zehazten dituen gainerako Salako fiskalen postuak.

Bi. Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusien eta probintzia-fiskaltzetako fiskalburuen kategoria, hurrenez hurren, Justizia Auzitegi Nagusietako eta Probintzia Auzitegietako presidenteen kategoria bera izango da.

Hiru. Bigarren kategoriakoa izan behar da gainerako karguak betetzeko Auzitegi Goreneko Fiskaltzetan, Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzan, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzan, Fiskaltza Berezietan, Kontuen Auzitegian, Ikuskaritza Fiskalean, Laguntza Unitatean eta Idazkaritza Teknikoan. Bigarren kategoriakoa izan behar da, orobat, fiskalburu eta fiskalburuordearen karguetan jarduteko.

Lau. Plantilla organikoak zehaztuko du zer kategoria behar den bigarren eta hirugarren kategorien barruko gainerako destinoetan jarduteko.

Hogeita hamaseigarren artikulua.

Bat. Artikulu honetako hirugarren apartatuan xedatutakoaren kalterik gabe, lehenbiziko kategoriako destinoak, Auzitegi Goreneko fiskalenak, autonomia-erkidegoetako fiskal nagusienak eta fiskalburuenak Estatutu honen 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera beteko ditu Gobernuak, Estatuko fiskal nagusiaren proposamenez. Modu berean izendatuko dira autonomia-erkidegoetako fiskaltzetako fiskalburuordeak eta burua lehen kategoriakoa duten organo guztietako plantilla osatzen duten fiskalak. Autonomia-estatutuek aurreikusten dutenean autonomia-erkidegoko Justizia Kontseilu bat izango dela, hari entzun behar zaio, nahitaez, autonomia-erkidegoko fiskal nagusia izendatu aurretik.

Autonomia-erkidegoko Justizia Kontseiluaren txostena jasotakoan, legebiltzar autonomikoari jakinaraziko zaio hautagai-proposamena, xedatu ahal dezan proposatutako pertsonak ganberan dagokion batzordearen aurrean agerraldia egin dezala, haren erregelamenduak aurreikusten duen moduan, proposatutako hautagaiaren merezimenduak eta egokitasuna balioesteko.

Auzitegi Goreneko fiskalaren, autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiaren, Konstituzio Auzitegiaren aurreko fiskalaren, Kontuen Auzitegiko fiskalaren eta ikuskatzaile fiskalaren karguetarako, beharrezko da gutxienez 15 urteko zerbitzua egina izatea karreran eta jada bigarren kategoriakoa izatea. Auzitegi Nazionaleko fiskalaren eta Probintzia Fiskaltzako fiskalburuaren karguetarako, beharrezko da gutxienez hamar urteko zerbitzua egina izatea karreran eta jada bigarren kategoriakoa izatea. Antzinatasun bera eskatuko zaie Fiskaltza Berezietako fiskalei eta Idazkaritza Teknikoko fiskalburuordeari.

Estatuko Fiskaltza Nagusian integratutako Salako fiskalei adskribatutako fiskalen karguetarako, beharrezko izango da gutxienez hamar urteko zerbitzua egina izatea karreran, bigarren kategoriakoa izatea eta atxikitako arloan gutxieneko espezializazio egiaztagarria izatea.

Eremuko fiskalburuaren kargura iristeko, bigarren kategoriakoa izan behar da.

Bi. Fiskalburuorde ikuskatzailea eta Ikuskaritza Fiskaleko fiskalak gehienez 10 urterako izendatuko dira. Beren kargua utzitakoan, aukeran, adskribatu gisa ariko dira Ikuskaritzako plaza hartu aurretik destinatuta zeuden plazan edo Madrilgo Autonomia Erkidegoko edo Probintziako Fiskaltzan, plaza baten jabe izan arte.

Hiru. Idazkaritza Teknikoko fiskalburua, fiskalburuordea eta fiskalak, Laguntza Unitateko fiskalak eta Estatuko Fiskaltza Nagusian integratutako Salako fiskalei adskribatutako fiskalak zuzenean izendatuko eta aldatuko ditu Estatuko fiskal nagusiak berak, eta harekin batera geratuko dira kargutik kanpo; beren eginkizunak betetzen jarraituko dute, ordea, fiskal nagusi berriak aldatzen edo beren karguan berresten dituen bitartean. Apartatu honetan aipatutako izendapenak eta, hala badagokio, Idazkaritza Teknikoko fiskalburugaia lehen kategoriara igotzeari dagokiona, Fiskalen Kontseiluari jakinaraziko dizkio fiskal nagusiak, proposamena Gobernuari egin baino lehen; horri dagokionez, ez da aplikatzekoa izango hamahirugarren artikuluan eta artikulu honen lehen apartatuan xedatutakoa.

Aldatu edo kargugabetutakoan, Idazkaritza Teknikoko fiskalburuordea eta aurreko apartatuan aipatutako fiskalak, aukeran eta plaza bat jabetzan lortu bitartean, adskribatu gisa sartuko dira Madrilgo Autonomia Erkidegoko edo Probintziako Fiskaltzan, edo Idazkaritza Teknikoan, Laguntza Unitatean edo Estatuko Fiskaltza Nagusian integratutako Salako fiskalei adskribatu baino lehen destinatuta zeuden fiskaltzan.

Lau. Atalak dituzten fiskaltzetan, ataletako fiskal dekanoak izendatzeko eta hala badagokio aldatzeko Estatuko fiskal nagusiaren ebazpena behar da, dagokion fiskalburuak proposamen arrazoitua egin ondoren.

Plantilla organikoak erabakiko du fiskaltza bakoitzean zenbat fiskal dekano izenda daitezkeen gehienez, haien antolamendu-beharren arabera. Plaza horiek betetzeko, beharrezko izango da, dagokion fiskalburuak proposamena egin baino lehen, deialdi bat egitea plantillako fiskalen artean. Proposamenarekin batera igorriko da postua eskatu duten gainerako fiskalen zerrenda, alegatzen dituzten merezimenduekin.

Bost. Gainerako destino fiskalak kategoriako funtzionarioen arteko lehiaketa baten bidez beteko dira, lanpostu-maila onena aintzat hartuta. Beste destino bat eskatzeko, gutxienez bi urte eman beharko dira aurrekoan, betiere nor bere eskariz iritsi bada hartara, salbu eta hautaketa-prozesua gainditu ondoren karrera fiskalean sartzen diren fiskalentzako lehen destinoari dagokionez: kasu horretan urtebetekoa izango da epea.

Hutsik gelditzen diren destinoak behar den kategoriara igotzen diren fiskalekin beteko dira.

Sei. Hizkuntza koofiziala duten autonomia-erkidegoetako fiskaltzetan plazak betetzean, merezimendu erabakigarria izango da hizkuntza horren ezagutza egiaztatzea, erregelamenduz ezartzen diren irizpideen arabera.

Lehentasunezko merezimendu gisa balioetsiko da, erregelamenduz ezartzen diren irizpideen arabera, erkidegoko zuzenbide propioaren ezagutza.

Zazpi. Fiskaltza Juridiko-Militarreko destinoak betetzeko, Jurisdikzio Militarraren Eskumenari eta Antolamenduari buruzko Lege Organikoan xedatutakoaren arabera jokatuko da.

Hogeita hamazazpigarren artikulua.

1. Lehen kategoriako lanpostu hutsak igoera bitartez beteko dira, bigarren kategoriakoak diren eta karrera judizialean gutxienez 20 urteko zerbitzua egin duten fiskalekin.

2. Bigarren kategoriako lanpostu hutsak hirugarren kategoriakoekin beteko dira, antzinatasun-hurrenkeran.

Hogeita hemezortzigarren artikulua.

1. Lehen bi kategorietako fiskalen izendapena errege-dekretuz egingo da. Gainerako izendapenak Justiziako ministroaren agindu bidez egingo dira.

2. Fiskalen egoera administratiboen adierazpena, edozein dela haien kategoria, Justiziako ministroaren aginduz egingo da.

Hogeita hemeretzigarren artikulua.

Fiskaltzako kideak lekuz aldatu ahal izango dira:

Bat. Norberak eskatuta Estatutu honetan xedatutakoari jarraikiz.

Bi. Igo dituzten kategoriako plaza betetzeko.

Hiru. Lege honetan ezarritako bateraezintasun erlatiboak izateagatik.

Berrogeigarren artikulua.

Orobat aldatu ahal izango dira lekuz:

Bat. Dagokien fiskalburuarekiko desadostasun larriengatik, horren zergatikoa berei egotz badakieke.

Bi. Orobat berei egotz dakiekeen zergatikoengatik Auzitegiarekin enfrentamendu larriak dituztenean.

Izendapena erabaki zuen organoak berak xedatuko du nahitaezko lekualdatzea, kontraesaneko espediente baten bitartez, aurrez Kontseilu Fiskalak aldeko txostena eginik.

Berrogeita batgarren artikulua.

Bat. Auzitegi Goreneko fiskalburuordea, Estatutu honen 20. eta 35.1.k) artikuluetan aipatzen diren Salako fiskalak eta lehen kategoriako gainerako fiskalburuak bost urterako izendatuko dira; epe hori betetakoan, kargua utziko dute, non eta ez dituzten berriz kargu horretarako izendatzen iraupen bereko hurrengo aldietarako. Legezko epea betetakoan, beste fiskalburutza baterako berresten edo izendatzen ez badituzte, Auzitegi Goreneko Fiskaltzara edo burua lehen kategoriakoa duten fiskaltzetako edozeini adskribatuta gelditukо dira, eta beren kategoriari eutsiko diote betiere.

Aurreko apartatuaren ondoreetarako, fiskalburutzat hartuko dira Auzitegi Goreneko Fiskaltzaren ataletako fiskalburu direnak.

Bi. Idazkaritza Teknikoko fiskalburua izendatzeko edo kargugabetzeko, 36. artikuluaren arabera jokatuko da. Kargugabetutakoan, aurreko apartatuan aurreikusitako egoera berean gelditukо da.

Hiru. Bigarren kategoriako fiskalburuak, fiskalburua lehen kategoriakoa duten fiskaltzetako fiskalburuordeak eta autonomia-erkidegoetako fiskaltzetako fiskalburuordeak bost urterako izendatuko dira; epe hori betetakoan, kargua utziko dute, non eta ez dituzten berriz kargu horretarako izendatzen iraupen bereko hurrengo aldietarako.

Lau. Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiak, bigarren kategoriako fiskalburuak eta artikulu honen 3. apartatuan aipatzen diren fiskalburuordeak, behin beren kargutik aldatuta edo kenduta, edo uko egin eta ukoa Estatuko fiskal nagusiak onartuta, aukeran eta behin betiko destino bat lortu bitartean, adskribatu gisa geratuko dira burutza edo buruordetza bete duten fiskaltzara edo kargurako izendatu zituztenean beren zerbitzua eskaintzen ari ziren fiskaltzara.

Bost. Aurrekoa gorabehera, organo bakoitzeko fiskalburuak eta artikulu honen 3. apartatuan aipatutako fiskalburuordeak kendu ahal izango ditu Gobernuak, Estatuaren fiskal nagusiak proposatuta, zeinak aurrez entzun beharko baitie Fiskalen Kontseiluari eta interesdunari eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoko fiskal nagusiari. Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusiek ere proposatu ahal izango dizkiote Estatuko fiskal nagusiari Gobernuak kendu ditzala haien lurralde-eremuko organoetako fiskalburuak.

III. KAPITULUA

Fiskal-izaera eskuratzea eta galtzea

Berrogeita bigarren artikulua.

Karrera fiskalean oposizio libre bidez sartu ahalko da, lege honetan eskatzen diren gaitasun-baldintzak betetzen dituztenen artean. Oposizio hori karrera judizialera sartzekoarekin batera egingo da, Botere Judizialaren Lege Organikoan aurreikusita dagoen moduan.

Berrogeita hirugarren artikulua.

Fiskaltzako kide izendatua izateko, espainiarra izan behar da, hemezortzi urtetik gorakoa, Zuzenbideko lizentziaduna edo doktorea, eta ez egotea lege honetan ezarritako ezein ezgaitasun-kasutan.

Berrogeita laugarren artikulua.

Eginkizun fiskalak betetzeko ezgaiturik daude:

1. Behar den gaitasun fisiko edo intelektualik ez dutenak.
2. Dolozko delituren batengatik kondenaturik daudenak, birgaitzea lortu ez duten bitartean. Zigorra sei hilabetetik gorakoa izan ez bada, Estatuko fiskal nagusiak, modu arrazoituan eta egindako delituaren izaera aztertuta, fiskal-izaera galarazi ordez, hura hiru urte bitarte eteteko zehapena ezarri ahalko du.

3. Birgaitu ez diren konkurtsopekoak.
4. Espainiako nazionalitatea galtzen dutenak.

Berrogeita bosgarren artikulua.

Bat. Fiskaltzako kidearen izaera eskuratzeko, baliozko izendapenaren ondoren, zina edo promesa egin behar da, eta kargua hartu.

Bi. Fiskaltzako kideek, beren lehen destinoko kargua hartu baino lehen, zina edo promesa egingo dute Konstituzioa eta legeak gordeko eta gordearaziko dituztela eta eginkizun fiskalak fidelki beteko dituztela, Erregearekiko leialtasunez. Zin edo promes hori destinatuak izan diren lurraldeko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren aurrean egingo da, eta sala horretako presidentearen ondoan autonomia-erkidegoko fiskal nagusia jarriko da.

Era berean egingo dute zina edo promesa Salako fiskalek karrera fiskaleko lehen kategoriara iristean. Ekitaldi hori Auzitegi Goreneko Gobernu Salaren aurrean izango da, eta sala horretako presidentearen ondoan Estatuko fiskal nagusia jarriko da.

Hiru. Autonomia-erkidegoetako fiskal nagusien kargu-hartzea beren fiskaltzak egoitza duen hirian izango da, Estatuko fiskal nagusia dela ekitaldiaren buru.

Probintzia-fiskaltzetako eta Eremuko fiskaltzetako fiskalburuen kargu-hartzea fiskaltzak egoitza duen lekuan izango da, autonomia-erkidegoko fiskal nagusia buru duen ekitaldi batean, non eta ez den bertan Estatuko fiskal nagusia, kasu horretan bera izango baita buru.

Gainerako fiskalen kargu-hartzea destinaturik dauden fiskaltzako fiskalburuaren aurrean izango da, non eta ez den ekitaldian izaten Estatuko fiskal nagusia edo Fiskaltzako eskala hierarkikoan maila handiagoa duen beste kideren bat, kasu horretan hura izango baita ekitaldiko buru.

Apartatu honetan aurreikusitako kasu guztietan, Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea eta, hala badagokio, dagokion Probintzia Auzitegikoa ekitaldiko presidentetzan dagokien lehentasunezko lekuan izango dira.

Lau. Kargu-hartzea dena delako destinorako izendapena argitaratu ondorengo hogei egun naturalen barruan izango da, edo arrazoi justifikaturen bat dagoelako eman den epe luzeagoaren barruan, eta fiskaltzako buruaren edo haren eginkizunak betetzen ari denaren eskutik egingo da.

Berrogeita seigarren artikulua.

Bat. Fiskal-izaera honako arrazoi hauetakoren batengatik galtzen da:

a) Uko egiteagatik.
b) Espainiako nazionalitatea galtzeagatik.
c) Diziplina-zehapenez zerbitzutik kentzeagatik.
d) Kargu publikoetarako desgaikuntzaren zigor nagusi edo osagarriagatik.
e) Ezgaitasun-kausetakoren bat izateagatik.

Bi. Fiskaltzako integrazio aktiboa galtzen da, orobat, borondatezko edo nahitaezko erretiroaren bitartez; hori Gobernuak erabakiko du, epaile eta magistratuentzat Botere Judizialaren Lege Organikoan adierazten diren kasu eta baldintza beretan.

IV. KAPITULUA

Karrera fiskaleko egoerak

Berrogeita zazpigarren artikulua.

Karrera fiskaleko egoerak Botere Judizialaren Lege Organikoan epaile eta magistratuentzat xedatutakora egokituko dira, eta erregelamenduz garatuko dira.

V. KAPITULUA

Fiskaltzako kideen eskubideak eta betebeharrak

Berrogeita zortzigarren artikulua.

Fiskaltzako kideen betebehar nagusia da zerbitzatzen duten karguan fideltasunez aritzea, hark dakartzan funtzioak betetzean azkar eta eraginkor jardutea, batasunaren eta mendekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera eta, betiere, legezkotasun- eta inpartzialtasun-printzipioetara atxikirik.

Berrogeita bederatzigarren artikulua.

Fiskaltzako kideek destino ofiziala duten hirian izan beharko dute bizilekua. Ez daukate hortik joaterik hierarkiako nagusien baimena izan ezean.

Orobat, lagundu beharko dute, behar den denboran eta Fiskaltzako buruaren jarraibideak betez, hartako lanean eta jardutea dagokien auzitegietan.

Berrogeita hamargarren artikulua.

Fiskaltzako kideek beren karguagatik jakiten dituzten gai isilpekoen behar den sekretua gordeko dute.

Berrogeita hamaikagarren artikulua.

Fiskaltzako kideek eskubidea izango dute kargurako eta karreran mailaz igotzeko, legez ezartzen diren baldintzetan. Fiskaltzako kargudunek berekin izango dituzte erregelamenduz ezartzen diren ohoreak.

Berrogeita hamabigarren artikulua.

Fiskaltzako kideek erregelamenduz ezartzen diren baimen eta lizentziak eta sarien araubidea izango dituzte; batzuk nahiz besteak Botere Judizialaren Lege Organikoak epaile eta magistratuentzat xedaturikoan inspiratuak.

Berrogeita hamahirugarren artikulua.

Legez arautuko da Fiskaltzako kideen ordainsarien araubidea. Karrera judizialeko kideekin parekaturik egongo dira Fiskaltzakoak ordainsarietan. Orobat, asistentzia egokia eta Gizarte Segurantza izango dituzte, legeak ezarritako baldintzetan.

Berrogeita hamalaugarren artikulua.

Konstituzioaren 127. artikuluan xedatutakoaren arabera, fiskalen elkartze profesionalerako eskubidea aitortzen da, zeina libreki baliatuko den, Konstituzioaren 22. artikuluaren esparruan, eta erregela hauei atxikiko zaie:

Bat. Fiskalen elkarteek nortasun juridikoa eta beren helburuak betetzeko gaitasun osoa izango dute.

Xede zilegitzat izan dezakete kideen interes profesionalak defendatzea, alderdi guztietan, eta orobat Justizia zerbitzatzera bideratutako azterketa eta jarduerak gauzatzea, oro har.

Bi. Fiskal-izaera dutenek soilik parte hartu ahal izango dute, eta ezingo dira haietan sartu beste kidego edo karrera batzuetako kideak.

Hiru. Fiskalek aukera librea izango dute lanbide-elkarteetan afiliatzeko edo ez afiliatzeko. Elkarteek irekita egon beharko dute karrera fiskaleko edozein kide sartzeko.

Lau. Lanbide-elkarteak modu baliozkoan eraturik geldituko dira Justizia Ministerioak horretarako eramango duen erregistroan inskribatzen direnetik. Sustatzaileetako edozeinek eskatuta egingo da inskripzioa, eta harekin batera jarriko dira Estatutuen testua eta afiliatuen zerrenda.

Bost. Estatutuetan, gutxienez, honako hauek adierazi behar dira:

Lehenengoa.- Elkartearen izena, konnotazio politikorik gabea. Bigarrena.- Helburu espezifikoak.

Hirugarrena.- Elkartearen antolamendua eta ordezkaritza. Demokratikoak izan behar dituzte barne-egitura eta funtzionamendua.

Laugarrena.- Afiliazio-araubidea.

Bosgarrena.- Baliabide ekonomikoak eta kuotak.

Seigarrena.- Elkarteko zuzendaritza-karguak hautatzeko modua.

Sei. Lanbide-elkarteek legearen kontrako jarduerak edo beren estatutuen esparrua gainditzen duten jarduerak egiten dituztenean, elkartea desegiteko eskatu ahal izango du Estatuko fiskal nagusiak, deklarazioko judizio arruntaren izapideen bitartez. Erabakitzeko eskumena Auzitegi Goreneko 1. Salari dagokio, eta hark aukera izango du elkartea kautelaz etenda uzteko.

Berrogeita hamabosgarren artikulua.

Fiskaltzako kide bakar bat ere ezin izango da behartu bere kargu edo eginkizuna dela-eta agintari administratiboen aurrean zuzenean agertzera, hargatik eragotzi gabe agintarien arteko sorospen- edo laguntza-betebeharrak.

Fiskaltzako kide bakar batek ere ezin izango du bere eginkizunak betetzeko moduari buruzko agindu edo instrukziorik jaso, ez bada hierarkiako nagusiengandik.

Estatuko fiskal nagusiari dagokionez, 8. artikuluak eta hurrengoek xedatzen dutenari jarraituko zaio.

Berrogeita hamaseigarren artikulua.

Aktibo dauden karrera fiskaleko kideak ezin izango dira atxilotu mendeko diren hierarkiako nagusiaren baimenik gabe, agintari judizial eskudunaren aginduz edo ageri-ageriko delitu-kasuetan izan ezik. Ageriko delitu-kasuetan, atxilotua berehala jarriko da agintari judizial hurbilenekoaren esku, eta, bi kasuetan, horren berri emango zaio berehala hierarkiako nagusiari.

VI. KAPITULUA

Bateraezintasunak eta debekuak

Berrogeita hamazazpigarren artikulua.

Kargu fiskaletan aritzearekin bateraezinak dira:

1. Epaile- edo magistratu-karguak, eta jurisdikzio-ordena guztietako auzitegi eta epaitegietako lanak.

2. Beste edozein jurisdikziotakoak, eta orobat arbitraje-jarduera edo -organoetan parte hartzea.

3. Herritarrek aukeratutako edozein kargu, edo edozein izendapen politiko, izan Estatukoa, autonomia-erkidegoetakoa, probintzietakoa edota gainerako toki-erakundeetakoa edo haien mendeko organismoetakoa.

4. Estatuaren Administrazioak, Gorte Nagusiek, Errege Etxeak, autonomia-erkidegoek, probintziek, udalerriek eta haien mendeko edozein entitate, organismo edo enpresak esleitutako edo ordaindutako postu edo karguak.

5. Beste edozein postu, kargu edo lanbide ordaindu, salbu irakaskuntza edo ikerketa juridikoa, eta ekoizpen eta sorkuntza literarioa, artistikoa, zientifikoa eta teknikoa, hierarkiako nagusiari behar bezala jakinarazia betiere, eta haietatik eratorritako argitalpenak, administrazio publikoen zerbitzupeko langileen bateraezintasunari buruzko legeetan xedatzen denarekin bat.

6. Abokatutzan jardutea, ez bada fiskalaren, ezkontidearen edo antzeko afektu-harremanez modu egonkorrean loturik dagoen pertsonaren, bere guraso-ahalaren mende dauden seme-alaben edo tutoretzapean dituenen gai pertsonalez arduratzeko; prokuradoretzan aritzea, eta edozein aholkularitza juridikotan aritzea, ordaindua izan edo ez.

Abokatutzan jarduteko bateraezintasunaren barruan sartuko da, kasu guztietan, zuzenean edo bitarteko pertsonaren baten bitartez eramatea fiskalak fiskal gisa parte hartu duen gaiak, nahiz eta ondoren eszedentzia-egoerara pasatu izan. Kasu horri Abokatutzaren Estatutu Orokorrean bateraezintasun-kausetan sarturik egonda abokatu-lanbidean jarduten dutenentzat aurreikusitako diziplina-erantzukizunaren araubidea aplikatu ahalko zaio.

7. Zuzenean edo bitarteko pertsonaren baten bidez edozein merkataritza-jardueratan aritzea. Salbuetsita dago norberaren ondasunetatik lorturiko produktuen eraldaketa eta salmenta; eragiketa horiek egin ahal izango dira, baina jendearentzat irekita dagoen establezimendurik izan gabe.

8. Edozein eratako merkataritza-sozietate edo -enpresa publiko edo pribatutan zuzendari, gerente, administratzaile, kontseilari eta bazkide kolektibo izatea, edo zuzeneko esku-hartze administratiboa edo ekonomikoa dakarren beste edozein eginkizun izatea.

Berrogeita hemezortzigarren artikulua.

Fiskaltzako kideek ezin izango dute beren karguetan jardun:

Bat. Fiskaltzaren lurralde-barrutiko herriren batean ezkontideak edo antzeko afektu-harremanez modu egonkorrean loturik dagoen pertsonak industria- edo merkataritza-jarduera bat egin, eta jarduera horrek, Kontseilu Fiskalaren iritziz, dena delako Fiskaltzako kideari eginkizuna inpartzialki betetzea eragozten badio.

Bi. Fiskaltza edo atal berean senideren batek –bigarren mailarainoko odolkidetasunez edo kidetasunez–, ezkontideak edo antzeko afektu-harremanez modu egonkorrean loturik dagoen pertsonak karrera fiskaleko karguren bat betetzen badu, betiere hurren-hurreneko mendekotasun hierarkiakoa baldin badago haien artean.

Apartatu honen ondoreetarako, hurren-hurreneko mendekotasun hierarkikotzat hartuko da fiskaltzako fiskalburua fiskalburuordearekin eta atal bakoitzeko dekanoarekin lotzen duena, bai eta atal bakoitzeko dekanoa dagokion ataleko fiskalekin lotzen duena.

Ondore beretarako, hurren-hurreneko mendekotasun hierarkikoa dago autonomia-erkidegoko fiskal nagusiaren eta erkidego bereko probintzia-fiskalburuen artean, eta orobat probintzia-fiskalburuaren eta probintzia bereko eremuko fiskalburuen artean.

Hiru. Botere Judizialaren Lege Organikoak karrera judizialeko eta fiskaleko kideen artean bateraezintasunak ezartzen dituenean.

Lau. Ezkontideak edo antzeko afektu-harremanez modu egonkorrean loturik dagoen pertsonak edo bigarren mailako odolkidetasunezko edo kidetasunezko senide batek abokatu edo prokuradore gisa jardun ohi duen fiskaltza batean, ezin izango dira fiskalburu izan, bostehun mila biztanletik gorako lurralde-barrutia izan ezean, eta hargatik abstentzio-betebeharra eragotzi gabe, hala badagokio.

Bost. Izendatu aurreko bi urteetan haren lurraldean abokatu edo prokuradore gisa jardun duten fiskaltza batean.

Berrogeita hemeretzigarren artikulua.

Fiskaltzako kideak ezin izango dira ezein alderdi politiko edo sindikatutako kide izan eta ezin izango dute haien zerbitzuko lanik izan, ez botere, agintari edo funtzionario publiko nahiz korporazio ofizialei beren ekintzengatik zorionak edo gaitzespenak adierazi, ez izaera edo atributu ofizialez joan hala ez dagokion edozein ekitaldi edo bilera publikotara bere eginkizunak baliatuz. Orobat, ezin izango dute parte hartu legebiltzar-hauteskundeetan, autonomikoetan edo tokikoetan, beren boto pertsonala ematetik harago.

VII. KAPITULUA

Fiskaltzako kideen erantzukizuna

Hirurogeigarren artikulua.

Fiskaltzako kideei erantzukizun zibila eta penala eskatzeari dagokionez eta Estatuko Administrazioak haien aurka errepikatzeari dagokionez, hala badagokio, Botere Judizialaren Lege Organikoak epaile eta magistratuentzat xedatutakoak aginduko du, aplikatzekoa den neurrian.

Hirurogeita batgarren artikulua.

Fiskaltzako kideek diziplina-erantzukizuna izango dute lege honetan aurreikusitako faltaren bat egiten dutenean.

Fiskaltzako kideek egindako faltak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke.

Hirurogeita bigarren artikulua.

Hauek jotzen dira falta oso astuntzat:

Bat. Lege honen 45. artikuluan jasotzen den Konstituzioarekiko leialtasunaren betebeharra nahita ez betetzea, hala gertatu dela adierazten bada epai irmoan.

Bi. Estatutu honetan ezarritako moduan idatziz zuzendutako agindu partikularrak eta errekerimendu pertsonalak ez betetzea, horretatik kaltea etorri baldin bada prozesuan edo aldaketa nabarmena fiskaltzaren barne-funtzionamenduan.

Hiru. Alderdi politikoetan edo sindikatuetan afiliatzea, edo haien zerbitzuko postu edo karguak betetzea.

Lau. Fiskalak kargua betetzen duen barrutiko agintariekiko liskar larri eta etengabekoak eragitea, bere eginkizuna betetzeaz bestelako arrazoiengatik.

Bost. Lege honen 60. artikuluan jasotzen diren eta eginkizuna betetzean eragin den dolo edo erru larriagatik epai irmo batean erantzukizun zibilaren deklarazioa ematea ekarri duten egite edo ez-egiteak.

Sei. Fiskal-karguarekin bateraezinak diren eta Lege honen 57. artikuluan jasotzen diren jardueretako edozeinetan aritzea, ez bada falta astuna Lege honen 63. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Zazpi. Fiskaltzaren baterako norbera izenda dezaten eragitea, izendatua Lege honen 58. artikuluan jasotzen diren bateraezintasun- edo debeku-egoeretan dagoenean; edota organo horietan kargua betetzen jarraitzea, 39.3. artikuluan jasotzen den nahitaezko lekualdatzea abiarazteko beharrezko diren inguruabarrak Estatuko Fiskaltza Nagusiari jakinarazi gabe.

Zortzi. Abstentzio-betebeharra ez betetzea, jakinik badela legez xedaturiko kausetakoren bat.

Bederatzi. Auzigaien azterketa edo aginduta daukaten beste edozein eginkizun, justifikaziorik gabe eta behin eta berriro, alde batera uztea edo atzeratzea.

Hamar. Zerbitzua uztea edo destinoa duen fiskaltzaren egoitzan ez azaltzea, justifikaziorik gabe eta modu jarraituan, zazpi egun naturalez edo gehiagoz.

Hamaika. Egia ez esatea baimen, autorizazio, bateragarritasun-adierazpen, dieta eta laguntza ekonomikoak lortzeko eskaerei dagokienez.

Hamabi. Fiskalak bere eginkizunak betetzean edo hori dela-eta ezagututako gertakari edo datuak ezagutaraztea, horrekin kalteren bat egiten badio prozesu baten izapidetzeari edo pertsonaren bati.

Hamahiru. Fiskal-izaeraz abusatzea agintari, funtzionario edo profesionalengandik aldeko tratu justifikatu gabea lortzeko.

Hamalau. Fiskalak falta astun bat egitea lehenago bi falta astunengatik zehatua izanik, lehenagokoak irmo geratu badira, ez badira ezeztatu edo ez badagokie haien idazpenak ezeztatzea, Lege honen 69. artikuluan jasotakoarekin bat.

Hamabost. Betebeharrak betetzean, ezjakite barkaezina izatea.

Hamasei. Arrazoirik ez adieraztea, modu nabarmenean, Estatuko fiskal nagusiaren jarraibideen arabera arrazoituak izan behar duten txosten eta irizpenetan.

Hirurogeita hirugarren artikulua.

Hauek jotzen dira falta astuntzat:

Bat. Hierarkia-ordenan gorago dauden nagusiei errespetua galtzea, aurrez aurre, haiei zuzendutako idatzi batean edo argitara emanda.

Bi. Estatutu honetan ezarritako moduan jasotako agindu edo errekerimenduak ez betetzea.

Hiru. Autoritate-gehiegikeria edo -abusua edo modu larrian begiramenik ez izatea herritarrei, erakundeei, epaile eta magistratuei, fiskalei, idazkariei, auzitegi-medikuei, kudeaketa, izapidetze eta sorospen judizialeko kidegoetako funtzionarioei, abokatu eta prokuradoreei, lan-harremanetako gradudunei eta polizia judizialeko funtzionarioei eta justizia-administrazioaren zerbitzura dauden edo bulego fiskalean diharduten gainerako langileei.

Lau. Idazkariei eta mendeko langile laguntzaileei diziplina-erantzukizuna eskatzeari uztea, baldin badakite, edo jakitea badagokie, ez-betetze larria egin dutela beren betebeharretan.

Bost. Fiskalak bere eginkizunak betetzean jakindako gertaerak edo datuak jakitera ematea, ez bada lege honen 62. artikuluaren 12. apartatuko falta oso astuna.

Sei. Fiskalaren destino den fiskaltzaren egoitzan ez azaltzea, justifikaziorik gabe eta modu jarraituan, hiru egun naturalez baino gehiagoz eta zazpi egunez baino gutxiagoz.

Zazpi. Seinalatuta dauden eta legez aurreikusitako moduan zitazioa egin zaion entzunaldi publikodun ekitaldi prozesaletara ez joatea, justifikaziorik izan gabe, ez bada falta oso astuna.

Zortzi. Fiskala arduratu beharreko auzigaien azterketa justifikaziorik gabe atzeratzea, ez bada falta oso astuna.

Bederatzi. Bateragarritasun-deklarazioa eskatzeko modukoa den edozein jardueratan aritzea, dagokion baimena lortu gabe edo alegatutakoan egia esan gabe lortuta.

Hamar. Falta arin bat egitea, aurretik beste bi falta arinengatik ebazpen irmo baten bidez zehatua izan bada, lehenagoko horiek ez badira ezeztatu edo ez badagokio haien idazpenak ezeztatzea, lege honetan ezarritakoaren arabera.

Hamaika. Fiskal-izaeraren berezko betebeharren gainerako urratzeak, lege honetan ezarriak, astuntzat jotzeko modukoak badira, aintzat hartuta egitatearen intentzioa, Justizia Administrazioarentzat zer garrantzi duten eta eginkizun fiskalaren duintasunak zer kalte izan duen.

Hamabi. Botere, agintari edo funtzionario publiko nahiz korporazio ofizialei beren ekintzengatik zorionak edo gaitzespenak adieraztea, fiskal-izaera alegatuz edo izaera horretaz baliatuz. Halako jarduerak Fiskalen Batzordeak eginak badira, bozketan parte hartu dutenak joko dira erantzuletzat, botoa modu indibidualean salbatu dutenak izan ezik.

Hirurogeita laugarren artikulua.

Hauek jotzen dira falta arintzat:

Bat. Hierarkiako nagusiei errespeturik ez izatea, jokabide hori falta astuntzat jotzeko arrazoirik ez denean.

Bi. Arretarik ez egitea edo begirunerik ez izatea hierarkia-ordenan maila berean edo beherago daudenei, herritarrei, erakundeei, epaile eta magistratuei, fiskalei, idazkariei, auzitegi-medikuei, kudeaketa, izapidetze eta sorospen judizialeko kidegoetako funtzionarioei, abokatu eta prokuradoreei, lan-harremanetako gradudunei, polizia judizialeko funtzionarioei eta justizia-administrazioaren zerbitzura dauden edo bulego fiskalean diharduten gainerako langileei, beren inguruabarrengatik falta astuntzat jotzeko modukoak ez direnean.

Hiru. Beraren esku jarri diren gaiez arduratzean legez ezarrita dauden epeak ez betetzea, horretarako justifikaziorik edo arrazoirik izan gabe.

Lau. Fiskalaren destino den fiskaltzaren egoitzan ez azaltzea, justifikaziorik gabe eta modu jarraituan, egun natural batetik hirura bitartean.

Bost. Epaitegi eta auzitegiak arduratzen ari diren auzigaietako edozeinen inguruko gomendatze hutsa.

Sei. Nagusiengandik jasotako agindu, errekerimendu edo oharrak aintzat ez hartzea, non eta hori ez den falta astunagoa, aurreko bi artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Zazpi. Arretarik ez egitea edo begirunerik ez izatea herritarrei, erakundeei, epaile eta magistratuei, hizkuntza koofizial batean jarduteko eskatzen diotenean, merezimendu gisa haren jakite-maila egokia eta nahikoa egiaztatu denean.

Hirurogeita bosgarren artikulua.

1. Falta oso astunek bi urteren buruan preskribatzen dute; falta astunek, urtebeteren buruan; eta arinek, berriz, Zigor Kodean falten preskripziorako jasotzen den epean.

Preskripzio-epea falta egiten den unetik hasiko da kontatzen. Dena den, lege honen 62.5 artikuluan jasotzen den kasuan, fiskalaren erantzukizun zibila deklaratzen duen epaia irmo bihurtzen den unean hasten da preskripzio-epea.

2. Preskripzioa eten egingo da diziplina-prozedura abiarazteko erabakia jakinarazten den datatik aurrera edo, hala badagokio, fiskalaren jokabide ikertuari loturiko informazio-eginbideak abiarazteko erabakia jakinarazten denetik aurrera.

Preskripzio-epea berriro irekiko da, baldin eta eginbideak edo prozedura sei hilabetez geldituta egoten badira diziplina-espedientepean den fiskalari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik.

Hirurogeita seigarren artikulua.

1. Zehapen hauek jarri ahal izango zaizkie funtzionarioei beren jardunean egindako faltengatik:

a) Ohartarazpena.
b) Hiru mila eurorainoko isuna.
c) Destinoa zuen tokitik gutxienez ehun kilometrora dagoen fiskaltza batera nahitaez lekualdatzea.
d) Hiru urterainoko etendura.
e) Kargutik kentzea.

Nahitaezko lekualdatzearekin zehatutako fiskalak ezin izango du lehiaketetan parte hartu urtebetetik hiru urtera bitarteko epean.

Lehiaketetan parte hartzeko debekuaren iraupena nahitaez zehaztu behar da prozedura amaitzen duen ebazpenean.

Falta astun edo oso astun batengatik zehatutako fiskalburua kendu ahal izango da fiskalburutzatik, Estatuko fiskal nagusiak proposaturik, Fiskalen Kontseiluari entzunik.

2. Falta arinak, ohartarazpenarekin edo hirurehun eurorainoko isunarekin edo biekin soilik zehatu ahal izango dira; falta astunak, hirurehun eurotik hiru mila eurora bitarteko isunarekin; eta falta oso astunak, berriz, etendurarekin, nahitaezko lekualdatzearekin edo kargutik kentzearekin.

3. Edozein zehapen ezartzean, graduazio- eta proportzionaltasun-irizpideei jarraituko zaie zehapen-erantzunean; astunagotu edo arinagotu egingo da gertaeraren eta ustez araua urratu duenaren inguruabarren arabera.

4. Falta oso astunengatik jarritako zehapenek bi urteren buruan preskribatuko dute; falta astunengatik jarritakoek, urtebeteren buruan; eta arinengatik jarritakoek, berriz, Zigor Kodean falten preskripziorako xedatzen den epean. Zehapenak ezartzen dituen ebazpena irmo bihurtu eta biharamunean hasten dira zenbatzen preskripzio-epe horiek.

Hirurogeita zazpigarren artikulua.

Hauek izango dute zehapenak ezartzeko eskumena:

1. Ohartarazpenerako, dagokion fiskalburuak.
2. Etendura-zehapena bitartekoak ezartzeko, Estatuko fiskal nagusiak.
3. Zerbitzutik kentzearen zehapena ezartzeko, Justiziako ministroak, Estatuko fiskal nagusiak proposaturik, aurrez Fiskalen Kontseiluak horren aldeko txostena eginda.

Fiskalburuaren ebazpenei errekurtsoa jar dakieke Fiskalen Kontseiluan.

Estatuko fiskal nagusiaren ebazpenei errekurtsoa jar dakieke Justiziako ministroaren aurrean.

Administrazio-bidea agortzen duten Fiskalen Kontseiluaren eta Justiziako ministroaren ebazpenen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Auzitegi Nazionaleko dagokion salan.

Hirurogeita zortzigarren artikulua.

Ohartarazpen-zehapena zuzenean jarri ahal izango da, aurrez interesdunari entzunaldia emanik. Gainerako zehapenetarako, nahitaezkoa izango da kontraesate-espedientea, interesdunari entzunaldia emanik.

Hirurogeita bederatzigarren artikulua.

Diziplina-zehapen irmoen idatzoharra egingo da interesdunaren espediente pertsonalean, eta zehapena ezarri duen agintaria arduratuko da hala egin dadin.

Idatzoharrak Estatuko fiskal nagusiaren erabakiz ezeztatuko dira zehapena betetakoan, eta, ezarri zenetik sei hilabete, bi urte edo lau urte igarotakoan, hurrenez hurren, falta arina, astuna edo oso astuna den, epe horretan funtzionarioak ez badu egitate zehagarririk egin. Falta arinengatik ezarritako faltak automatikoki ezeztatuko dira. Gainerakoen ezeztapena espediente batez egingo da, interesdunaren eskariz eta Fiskalen Kontseiluak txostena emanda.

Ezeztapenak aurrekaria ezabatu egingo du ondore guztietarako, berriztatzearen eta berrerortzearen balioespena barne.

Hirurogeita hamargarren artikulua.

Diziplinaz kargutik kendutako fiskalen birgaitzeari dagokionez, Botere Judizialaren Lege Organikoak epaile eta magistratuentzat xedatutakoak aginduko du, aplikatzekoa den neurrian.

IV. TITULUA

Langileak eta bitarteko materialak

KAPITULU BAKARRA

Hirurogeita hamaikagarren artikulua.

Organo fiskaletan zerbitzua emateko behar den adina pertsonal tekniko eta laguntzailea izango da, dagozkion fiskalburuen mende, hargatik eragotzi gabe beste organo batzuei beren esparruan dagokien eskumena.

Hirurogeita hamabigarren artikulua.

Bat. Fiskaltzek, betiere, instalazio egoki bat izango dute dagozkien auzitegi eta epaitegien egoitzan, eta, gainera, egoitza horietatik kanpoko instalazio propioak ere izan ahalko dituzte zerbitzua hobeto emateko hala komeni denean.

Bi. Fiskaltzaren instalazioak Aurrekontuen Legean izendatzen diren bitartekoez horniturik egongo dira.

Hiru. Estatuaren Aurrekontu Orokorrek eta Justizia Administrazioaren gaian eskumenak eskuratuak dituzten autonomia-erkidegoen aurrekontuek aintzat hartuko dituzte, dagokion atalean, eta Estatuko fiskal nagusiak proposatutako Fiskaltzaren behar funtzionalak haztatu ondoren, aurrez entzunaldia emanik, hala badagokio, gaian eskumenak bereganatuak dituzten autonomia-erkidegoei, behar horiei erantzuteko egoki xehatutako aurrekontuko partidak.

Betiere, partida horietako bat fiskal nagusiaren Laguntza Unitateak kudeatuko du, eta haren xedea Estatuko Fiskaltza Nagusiaren administrazioaren funtzionamenduari erantzutea izango da.

Lehenengo xedapen

iragankorra. (Indargabetua)

Bigarren xedapen iragankorra.

(Indargabetua)

Hirugarren xedapen

iragankorra. (Indargabetua)

Laugarren xedapen

iragankorra.

(Indargabetua)

Bosgarren xedapen

iragankorra.

(Indargabetua)

Seigarren xedapen

iragankorra.

(Indargabetua)

Zazpigarren xedapen iragankorra.

Hamar urteko gehieneko epea, 36.2 artikuluan aurreikusia, zeinaren bidez destinoa Ikuskaritza Fiskalean duten fiskalak izendatzen diren, lege hau indarrean jartzen denetik kontatzen hasiko da gaur egun hor destinatuta daudenentzat.

Zortzigarren xedapen iragankorra.

Lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean eratuko dira autonomia-erkidegoetako fiskaltzak, 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Eratzeko unean, Justizia Auzitegi Nagusietako gaur egungo fiskalburuak, berez, autonomia-erkidegoetako fiskal nagusi deituko dira, eta kargu horretan egongo dira izendatu zituzten bost urteko epea bete arte, hargatik eragotzi gabe gerora berritzea, 41. artikuluaren 3. apartatuan xedatutakoaren arabera. Era berean, Justizia Auzitegi Nagusietako fiskalburuordeek autonomia-erkidegoko fiskaltza nagusiko fiskalburuordearen kargua beteko dute geratzen zaien kargualdian, 41. artikuluaren 3. apartatuan eta xedapen iragankor honetan xedatutakoaren arabera kontaturik, hargatik eragotzi gabe, kasu honetan ere, beste kargualdi baterako izendatzea.

Horretarako, behin autonomia-erkidegoetako fiskaltza nagusietako plantillak zehaztuta, lehiaketa baterako deialdia egingo da, zehaztutako epearen barruan, Estatutu Organiko honen 36. artikuluaren 5. apartatuan xedatutakoarekin bat. Lehiaketa hori ebatzitakoan, une horretan destinoa Justizia Auzitegi Nagusietan izanik fiskaltza nagusi berrietan plazarik lortu ez duten fiskalak, zuzenean, dagokien Probintzia Fiskaltzan sartuko dira.

Urtebeteko epe berean, eremu-fiskaltzak eratuko dira. Horretarako, Gobernuak, aurrez Estatuko fiskal nagusiak txostena eginik eta eragiten dien lurraldeko Fiskalen Kontseiluari eta fiskalburuei entzunik, behar diren xedapenak emango ditu, batez ere haietako fiskalburuen plazak betetzeko. Xedapen honetan aurreikusitako prozeduraren bitartez Eremuko fiskaltza gisa eratzen ez diren adskripzio iraunkorrak, berez, probintzia-fiskaltzen lurralde-atal bihurturik geldituko dira, lege honen hemezortzigarren artikuluko laugarren apartatuko bigarren paragrafoan eta bosgarren apartatuan aurreikusitako moduan.

Lege hau indarrean jartzean amaituko da berrogeita batgarren artikuluko hirugarren apartatuan jasota dauden eta karguan bost urte baino gehiago daramaten fiskalburuordeen kargualdia.

Ateratzen diren plazak lege honetan aurreikusitako moduan eskainiko dira betetzeko, eta haietara aurkeztu ahal izango dira xedapen honen eraginpekoak, zeinek betiere beren funtzioak betetzen jarraituko baitute izendapen berriak egiten diren bitartean. Lege hau indarrean jarri aurretik izendatuak izan eta karguan bost urte baino gehiago egin ez dituztenek epe horretara iristean amaituko dute kargualdia; izendatu zituzten datatik aurrera kontatuko da epea.

Bederatzigarren xedapen iragankorra.

Lege hau indarrean jartzean Estatuko fiskal nagusi denak karguan jarraituko du harik eta kargugabetzea gertatzen den arte, eta ez da kargugabetuko ez bada gertatzen Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren 31. artikuluko 1. apartatuko a), b), c), d) eta e) letretan aurreikusitako kasuetakoren bat.

Lege hau indarrean jarri aurretik Estatuko fiskal nagusiaren kargua bete dutenak ez dira horregatik aukerarik gabe gelditu Gobernuak proposatuak izateko, Fiskaltzaren Estatutu Organikoaren hogeita bederatzigarren artikuluarekin bat.

Lehen xedapen gehigarria.

Karrera fiskaleko kidearen izaera eskuratzeari eta galtzeari dagokionez, eta orobat haien ezgaitasunei, egoera administratiboei, eskubide eta betebeharrei, bateraezintasunei, debeku eta erantzukizunei dagokienez, ordezko modua aplikatzekoa izango da Botere Judizialaren Lege Organikoan epaile eta magistratuentzat xedatutakoa.

Europako Fiskal izendatutako Fiskaltzako kidea zerbitzu berezietako egoeran egongo da, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 351.a) artikuluaren arabera.

Europako Fiskaltzaren Elkargoak Europako fiskal delegatu izendatutako fiskalak zerbitzu berezietako egoeran egongo dira, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 351.c) artikuluaren arabera, izendatzen dituzten unetik kargua utzi arte, Europako Fiskaltza sortzeko lankidetza indartua ezartzen duen Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko 2017/1939 (EB) Erregelamendua aplikatzeko Lege Organikoan xedatutako moduan.

Bigarren xedapen gehigarria.

1. Fiskaltzak informazio-sistema bat eta komunikazio elektronikoen sistema bat izango ditu osotara integratuak, haien bitartez segurtatzeko bere jokaera-batasuna, Konstituzioaren 124. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Estatuko Fiskaltza Nagusiko organo eskudunek definituko eta kudeatuko dituzte Fiskaltzaren informazio-sistema eta komunikazio elektronikoen sare integratua. Horretarako, Justizia Ministerioaren laguntza administratibo eta teknologikoa izango dute.

Justizia-administraziorako baliabide materialez hornitzeko eskumenak beren gain hartu dituzten autonomia-erkidegoek, Justizia Ministerioarekin batera, parte hartuko dute Fiskaltza ekipamendu informatikoz hornitzean, estatutu organiko honetan eta Fiskaltzaren Informatika eta Komunikazio Elektronikoaren Batzorde Nazionalak hartutako erabaki eta ebazpenetan xedatutakoarekin bat.

3. Fiskaltzaren komunikazio-sare integratuak honako hau bermatuko du:

a) Fiskaltzak esku hartzen duen prozedura eta jarduketak identifikatzeko eta kodetzeko sistema bakar bat.

b) Berehala estatistika-informazio eguneratu eta guztiz zuzena lortzea. Horretarako, Fiskaltza arduratzen den prozeduren datu-base zentralizatu bat egongo da.

c) Fiskaltza guztiek irispide telematikoa izatea Justizia Ministerioak kudeatzen dituen esparru nazionaleko erregistro, datu-base, informazio-sistema eta aplikazio informatiko guztietara.

d) Estatuko fiskal nagusiak eta Fiskaltzako gainerako organo zentralek konexio telematiko etengabea izatea fiskaltza guztiekin eta karrera fiskaleko kide guztiekin, bai eta haiek beren artean ere. Horretarako, identifikaziorako eta komunikazio elektronikoetarako sistema bakar bat ezarriko da.

4. Fiskaltzaren Informatika eta Komunikazio Elektronikoaren Batzorde Nazionalak, Estatuko fiskal nagusia buru dela, nahitaez bete beharreko jarraibide eta irizpideak emango ditu, fiskaltza guztietan, sistema informatikoak eta komunikazio elektronikoen sistemak ezartzeko, erabiltzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko moduari buruz. Erregelamenduz ezarriko dira, errege-dekretuz, Batzorde Nazional horren egitura, osaera eta eginkizunak, eta orobat Fiskaltzako komunikazio elektronikoen sare integratuaren antolaketa, funtzionamendua eta ezaugarri teknikoak.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Auzitegi Goreneko fiskal emerituak.*

Auzitegi Goreneko Salako fiskalak, erretiroa hartutakoan eta Estatuko fiskal nagusiak Fiskalen Kontseiluari entzunda proposaturik, Salako fiskal emeritu izendatuko ditu Gobernuak urtez urte, hala eskatzen dutenean, baldin eta betetzen badituzte Botere Judizialaren Lege Organikoak (1985eko uztailaren 1eko 6/1985) Auzitegi Goreneko magistratu emerituentzat eskatzen dituen betekizunak, eta Auzitegi Goreneko Fiskaltzaren errefortzu-beharren arabera.

Laugarren xedapen gehigarria.

1. Karrera fiskaleko kideek elkar ordeztuko dute, Estatutu honetan, hau garatzen duten erregelamendu-mailako arauetan eta Estatuko fiskal nagusiak oro har ematen dituen jarraibideetan xedatutakoaren arabera.

2. Ordezte arrunten sistema baliatzerik ez dagoenean, ordezko fiskalak izendatu ahal izango dira, salbuespen modura, lanpostu hutsak, lizentziak, zerbitzu bereziak edo hala justifikatzen duen beste arrazoiren bat gertatuz gero.

3. Ordezko fiskalen araubide juridikoa erregelamenduz garatuko da, Botere Judizialaren Lege Organikoan ordezko magistratuentzat eta ordezko epaileentzat aurreikusten den antzeko modu batean; lege hori ordezko gisa aplikatu ahal izango da gai honetan.

Azken xedapenetako lehenengoa.

Gobernuari ahalmena ematen zaio:

A. Urtebeteko epean, Justiziako ministroak proposaturik, lege hau garatzeko erregelamendua egin dezan.

B. Plantillak fiskaltzetan banatzeko, bai haietan zerbitzua ematen duten fiskalei dagokienez, bai haietara adskribatutako laguntzaileei dagokienez, horrek ez badakar dagozkien plantilla-aurrekontuen gehikuntzarik.

Azken xedapenetako bigarrena.

Indargabeturik geratzen da mila bederatziehun eta hogeita seiko ekainaren hogeita bateko Fiskaltzaren Estatutua. Aurreko xedapenak aipatzen duen erregelamendua egiten ez den bitartean, gaur egun indarrean den legea aplikatzen segituko da lege honen aurka ez doan guztian.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezaten agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Baqueira Bereten, mila bederatziehun eta laurogeita bateko abenduaren hogeita hamarrean.

JUAN CARLOS E.

Gobernuko presidentea,
Leopoldo Calvo-Sotelo y Bustelo.

NIPO: 056220024

Testu bateratu honek ez du balio juridikorik.